2. Agregakina alubioikoa bada, drainatze-hodia biltzen duen agregakin-geruzaren estalduraren gutxieneko lodiera, edozein puntutan, drainaren diametroa halako 1,5 izango da, gutxienez.
3. Agregakina birinketakoa bada, drainatze-hodia biltzen duen agregakin-geruzaren estalduraren gutxieneko lodiera, edozein puntutan, drainaren diametroa halako hiru izango da, gutxienez.

5.1.2 Zoruak

Babes-hodien kondizioak:

Babes-hodiak estankokoak izango dira, eta malguak, aurreikusitako mugimenduak absorbatzeko.

Xafla iragazgaizgarrien kondizioak:

1. Xaflak jartzeko, dagozkien aplikazio-zehaztapenek agindutako marjinen barruko giro-kondizio termikoak behar dira.
2. Dagozkien aplikazio-zehaztapenen arabera zoruva aski lehor dagoenean jarri behar dira xaflak.
3. Material kimikoki bateraezinekin kontakturik ez izateko moduan jarri behar dira xaflak.
4. Dagozkien aplikazio-zehaztapenek agindutako gutxieneko teilakatzeak behar dira xaflen loturetan.
5. Iragazgaizpena jarriko den gainazalak ezin du material-irtengunerik izan, puntzonaketa-ariskurik eragin dezakeenik.
6. Xafla itsatsiak jartzen badira, inprimazioa eman behar da erregulazio- edo garbitze-hormigoiaren eta zimenduen gainean, eta xafla itsatsi gabeak jartzen badira, finkatze-perimetroan.
7. Xafla iragazgaizgarriak jartzen direnean, errefortzu-bandak jarri behar dira norabide aldatetetan.

Kutxatilen kondizioak:

Kutxatilen estalkiak markoari berari zigilatu behar zaizkio, bai kautxuzko banden bidez, bai erregistrarako aukera ematen duten antzeko elementuen bidez.

Garbitze-hormigoiaren kondizioak:

1. Zolaten eta plaka drainatuen azpiko lurra trinkotu egin behar da, eta % 1eko malda izan behar du, gutxienez.
2. Zoruko edo zimenduetako garbitze-hormigoiaren gainean xafla iragazgaizgari bat jarri behar denean, hormigoi horren gainazala berdindu egin behar da.

5.1.3 Fatxadak

Orrri nagusiaren kondizioak:

1. Orrri nagusia adreiluzkoa denean, jarri baino lehen, sartu-irten bat egin behar zaie uretan, salbu adreilu hidrofugatuen kasuan eta, UNE EN-772 11:2001 eta UNE EN 772-11:2001/A1:2006 arauetara jarraikiz, 1 kg/(m².min) baino hurrupaketa txikiagoa duten adreiluen kasuan. Ura sartzen ez uzteko erresistentzia handiko edo ertaineko junturak erabiltzen direnean, orria osatzen duen materiala hezatu egin behar da jarri baino lehen.
2. Elkarguneen eta izkinen ilara guztietan paretortzak utzi behar dira, fabrika-obra hari lotzeko.
3. Orrri nagusia ez badute zutabeek eteten, ez pitzatzeko moduan ainguratuko da orri hori zutabeetan. Orrri nagusia egiten denean, saihestu egin behar da hura zutabeei itsastea.
4. Orrri nagusia ez badute forjatuek eteten, ez pitzatzeko moduan ainguratuko da orri hori forjatuetan. Orrri nagusia egiten denean, saihestu egin behar da hura forjatuei itsastea.

Erdiko estalduraren kondizioak:

Eusten dion elementuari itsatsi behar zaio erdiko estaldura, eta modu uniformearen eman behar da, haren gainean.

Isolatzaille termikoaren kondizioak:

1. Modu jarraitu eta egonkorrean jarri behar da.
2. Isolatzaille termikoa panelez edo tapakiz eginda dagoenean eta fatxadaren bi orrien arteko tarte osoa betetzen ez duenean, barne-orria ukituz jarri behar da, eta haren eta kanpoko orriaren artean elementu bereizleak jarri behar dira.

Aire-ganbera aireztatuaren kondizioak:

Fatxada eraiki bitartean, zaindu behar da ez dadin txintxorrik, mortero-jariorik eta zikinkeriarik erori aire-ganberan eta hura aireztatzeke erabiltzen diren tarte-junturetan.

Kanpoko estalduraren kondizioak:

Hari eusten dion elementuari itsatsita edo finkatuta jarri behar da.

Puntu berezien kondizioak:

Dilatazio-junturak galgaturik egin behar dira eta garbi utzi behar dira, betegarria eman eta zigilatzeke.

5.1.4 Estalkiak

Maldak eratzeke kondizioak:

Iragazgaizpenari eusteko erabiltzen den elementua malda eratzen duena denean, haren gainazala uniforme eta garbia izango da.

Lurrunaren kontrako hesiaren kondizioak:

1. Lurrunaren kontrako hesia isolatzaille termikozko geruzaren hondoaren azpian eta alboetan hedatu behar da.
2. Dagozkien aplikazio-zehaztapenek agindutako marjinen barruan dauden kondizio termikoetan jarri behar da lurrunaren kontrako hesia.

Isolatzaille termikoaren kondizioak:

Modu jarraitu eta egonkorrean jarri behar da.

Iragazgaizpenaren kondizioak:

1. Xaflak jartzeko, dagozkien aplikazio-zehaztapenek agindutako marjinen barruko giro-kondizio termikoak behar dira.
2. Lanak eteten direnean, behar bezala babestu behar dira materialak.
3. Gehienezko maldaren lerroarekiko norabide perpendikularrean jarri behar da iragazgaizpena.
4. Iragazgaizpen-geruza guztiak norabide berean jarri behar dira, junturak estaliz.
5. Teilakatzeek ur-lasterraren noranzko berean geratu behar dute eta ez dute alboko ilarakoekin lerrokaturik geratu behar.

Aire-ganbera aireztatuaren kondizioak:

Estalkia eraiki bitartean, zaindu egin behar da aire-ganberan ez dadin erori txintxorrik, mortero-jariorik eta zikinkeriarik.

5.2 Lanen kontrola

1. Proiektuaren zehaztapenak, eranskinak, obraren zuzendariak baimendutako aldatetak eta obrako lanen zuzendariak agindutakoa betez egingo da obrako lanen kontrola, EKTren I. parteko 7.3 artiku- luan eta aplika daitekeen gainerako araudian ezarritakoari jarraikiz.
2. Obrako lanak egiten diren bitartean, egiaztatuko da proiektuaren baldintza-agirian ezarritako kontrolak eta haiek egiteko maiztasunak betetzen direla.
3. Obrako lanak egin bitartean sartutako aldatetako guztiak obraren dokumentazioan jasoko dira; alabaina, ezin kasutan ezin utziko dira bete gabe oinarritzko dokumentu honetan zehaztutako gutxieneko baldintzak.

5.3 Obra bukatuaren kontrola

EKTren I. parteko 7.4 artikuluan adierazitako irizpideei jarraituko zaie kontrola egitean. Oinarrizko dokumentuaren atal honetan ez da amaierako probarik agintzen.

6. Mantentze- eta kontserbazio-lanak

6.1 taulan zehaztutako mantentze-lanak egin behar dira, adierazten den maiztasunarekin, eta, akatsik atzemanez gero, behar diren zuzenketak egingo dira.

6.1 taula
Mantentze-lanak

	Lana	Maiztasuna
Hormak	• Horma partzialki estankoetako ebakuazio-kanalek eta -zorrotek egoki funtzionatzen dutela egiaztatzea	Urtean behin ⁽¹⁾
	• Horma partzialki estankoetako ganberaren aireztapen-irekidurak buxatuak ez daudela egiaztatzea	Urtean behin
	• Barneko iragazgaizpena ondo dagoela egiaztatzea	Urtean behin
Zoruak	• Drainatze- eta ebakuazio-sarearen garbitasun-egoera egiaztatzea	Urtean behin ⁽²⁾
	• Kutxatilik garbitzea	Urtean behin ⁽²⁾
	• Xukatzeko ponpen egoera egiaztatzea, erreserbakoena barne, halakorik instalatu behar izan bada drainatzea bermatzeko	Urtean behin
Fatxadak	• Pitzaduren edo arrakalen ondorioz nonbaitetik ura sartu den begiratzea	Urtean behin
	• Estalduraren kontserbazio-egoera aztertzea: pitzadurarik, askatzerik, hezetasunik eta orbanik baden ikustea	3 urtean behin
	• Puntuberezien kontserbazio-egoera aztertzea	3 urtean behin
	• Orri nagusian arrakalarik eta pitzadurarik, erortzerik edo beste deformaziorik baden begiratzea	5 urtean behin 10 urtean behin
Estalkiak	• Ganberaren tarte-junturak edo aireztapen-irekidurak garbi dauden begiratzea	Urtean behin ⁽¹⁾
	• Hustuketa-elementuak garbitzea (isurbideak, erretenak eta gainezkabideak) eta egoki funtzionatzen duten begiratzea	Urtean behin
	• Legarra berriz jartzea	3 urtean behin
	• Babesgarriaren edo teilatuaren kontserbazio-egoera aztertzea	3 urtean behin
	• Puntu berezien kontserbazio-egoera aztertzea	3 urtean behin

HO 5 atala_Urak hustea

1. Alderdi orokorrak

Atal hau eraikin berri guztiei aplikatu behar zaie.

2. Eskakizunen karakterizazioa eta kuantifikazioa

1. Instalazioaren barruan dagoen airea lokaletara pasatzen ez uzteko itxitura hidraulikoak jarri behar dira instalazioan, eta hondakinen emariari eragin gabe egin behar da.
2. Ura husteko sareko hodiekin ahalik eta ibilbide sinpleena izan behar dute, hondakinak aise husteko distantziak eta maldak izango dituzte eta autogarbigarriak izango dira. Saihestu egin behar da barnean ura atxikitzea.
3. Aurreikus daitezkeen emariak kondizio seguruetan garraiatzeko egokiak izan behar dute hodiaren diametroak.
4. Mantentze- eta konponketa-lanentarako erraz iristeko modukoak izan daitezkeen diseinatuko dira hodi- sareak; hori dela eta, agerian jarri behar dira, edo irekiguneetan edo patio txiki erregistragarrietan. Bestela, kutxatilik edo erregistroak izan behar dituzte.
5. Itxitura hidraulikoen funtzionamendua eta gas mefitikoen ebakuazioa ahalbidetzen duten aireztapen- sistema egokiak jarriko dira.
6. Instalazioa ezin da erabili hondakin- edo euri-urez besteko hondakin motak husteko.

3. Diseinua

3.1 Hustuketaren kondizio orokorrak

Ura husteko instalazioa eta estolda-sare publikoa lotzen dituen putzu edo kutxatila orokorrean hustu behar dute ura eraikineko hodi biltzaileek, ahal dela grabitatez, dagokion hargunetik barrena.

3.2 Ura husteko sistemen konfigurazioak

Bi estolda-sare publiko daudenean, bata euri-urena eta bestea hondakin-urena, sistema banatzaile bat jarri behar da eta hodi-sare bakoitza bereiz lotu behar zaio dagokion kanpoko sareari.

3.3 Instalazioak osatzen dituzten elementuak

3.3.1 Urak husteko sareko elementuak

Itxitura hidraulikoak:

_ Itxitura hidraulikoak izan daitezke:

- a) sifoi indibidualak; gailu bakoitzak berea du;
- b) sifoi-potoak; gailu batenak baino gehiagorenak izan daitezke;
- c) sifoi-isurbideak;
- d) sifoi-kutxatilik, zeinak euri-uren eta hondakin-uren eroanbide lurperatuen loturetan baitaude.

_ Itxitura hidraulikoek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- a) autogarbigarriak izan behar dute, halako moldez non haien zeharkatzen dituen urak eramango baititu solido esekiak;
- b) haien barne-gainazalek ez dituzte atxiki behar materia solidoak;
- c) ez dute izan behar egoki funtzionatzea eragozten dien zati mugikorrik;
- d) erraz iristeko eta manipulatzeko moduko garbiketa-erregistro bat izan behar dute;
- e) itxitura hidraulikoaren gutxieneko garaierak 50 mm izan behar du erabilera jarraituentzat, eta 70 mm, berriz, erabilera etenentzat. Gehienezko garaierak 100 mm izan behar du. Gailuaren hustu- keta-balbularen azpitik 60 cm edo gutxiagora egon behar du koroak. Sifoiaren diametroak hustu- keta-balbularen diametroa baino handiagoa edo berdina izan behar du, edo hustuketa-adarraren diametroa baino txikiagoa edo berdina. Diametro-desberdintasunik izanez gero, emariaren nora- bidean handitu behar du tamainak;
- f) gailuaren hustuketa-balbulatik ahalik eta hurbilen instalatu behar da, giroarekiko babesik gabeko hodi zikinaren luzera mugatzeko;
- g) ez dira seriean instalatu behar, eta, beraz, tresna sanitario multzo batentzat sifoi-potoa instalatzen denean, gailuok ez dute sifoi indibidualik izan behar;
- h) gailu bati baino gehiagori zerbitzua emateko itxitura hidrauliko bakarra jartzen bada, gailuen eta itxituraren artean ahalik eta distantzia txikiena utziko da;

- i) sifoi-poto batek ezin die zerbitzua eman hura instalatua dagoen gela hezean ez dauden beste tresna sanitario batzuei;
- j) harrasken, garbitegiaren eta ponpagailuen (garbigailuak eta ontzi-garbigailuak) isurbidea sifoi indibidualen egin behar da.

Hustuketa txikiko sareak:

Irizpide hauei jarraituz diseinatu behar dira hustuketa txikiko sareak:

- a) sarearen ibilbideak ahalik eta sinpleena izan behar du, grabitate bidezko zirkulazio naturala lortzeko, bat-bateko norabide-aldaketak saihestuz eta pieza berezi egokiak erabiliz;
- b) zorrotenei lotu behar zaizkie; diseinugatik hori posible ez denean, komun-hodiari lotzea onar-tzen da;
- c) sifoi-pototik zorrotenera dagoen distantziak ez du 2,00 m baino handiagoa izan behar;
- d) sifoi-potora ura eramaten duten adarrek 2,50 m edo gutxiagoko luzera izan behar dute, eta % 2-4 arteko malda;
- e) sifoi indibiduala duten gailuetan, ezaugarri hauek izan behar dituzte:
 - harrasketan, garbitegiaren, konketetan eta bidetetan, zorrotenera arteko distantziak 4,00 m izan behar du, gehienez, eta maldek % 2,5-5 bitartekoak izan behar dute;
 - bainuontzietan eta dutxetan, maldak % 10ekoa edo txikiagoa izan behar du;
 - komunontziek zorrotenera zuzenean hustu behar dute, edo 1,00 m edo gutxiagoko komuneko hargune-hodi baten bitartez, baldin eta hodiari ezin bazaio behar duen malda eman;
- f) konketetan, bidetetan, bainuontzietan eta harrasketan gainezkabide bat jarri behar da;
- g) ez dira bi isurbide aurrez aurre jarri behar hodi komun batera sartzen;
- h) isurbideetatik zorrotenerako loturek ahalik eta inklinazio handiena izan behar dute; inoiz ez 45° baino txikiagoa;
- i) sifoi indibidualen sistema erabiltzen denean, tresna sanitarioen hustuketa-adarrak adar-hodi bati lotu behar zaizkie, eta hodi horrek zorrotenean amaitu behar du, edo, hori ezinezkoa bada, komun-hodian; burua erregistragarria izan behar du hodiak, tapoi hariztatuarekin;
- j) aldi baterako instalazioetan izan ezik, sareetan ez da isurbide ponpatuak jarri behar.

Zorrotenak eta erretenak:

1. Zorrotenak desbideratzerik eta atzeraemangunerik gabe egin behar dira, diametro uniforme dutela garaiera guztian.
2. Diametroak ez du txikitu behar uraren norabidean.

Hodi biltzaileak:

Hodi biltzaileak luperatuak jarriko dira:

- Hodi biltzaile lurperatuak:

1. Hodiak neurri egokiko zanga batzuetan jarri behar dira, 5.4.3 atalean ezartzen den bezala, edateko uraren banaketa-sarearen azpian.
2. % 2ko malda izan behar dute, gutxienez.
3. Banaketa-sarera doazen zorrotenen eta komun-hodien hargunean, zorrotenen oinarriko kutxatila bat jarriko da tartean —ezin da sifoi-kutxatila bat izan—.
4. Erregistroak jarriko dira, halako moldez non ondoz ondokoan arteko tartekak ez baitira 15 m-tik gorakoak izango.

Lotura-elementuak:

1. Sare lurperatuetan, sare bertikalen eta horizontalen arteko lotura, eta horizontaletan, haien elkargune eta adarren artekoa, hormigoizko zimenduen gainean jarritako kutxatiletan egin behar da, ireki daitezkeen estalkiak jarrita. Kutxatilaren alde bakoitzetik hodi biltzaile bakarria sar daiteke, halako moldez non hodi biltzaileak eta irteerak eratutako angeluak 90° baino gehiago izango baititu.
2. Ezaugarri hauek izan behar dituzte:
 - a) zorrotenaren oinarriko kutxatiletatik hasten den eroanbideak lurpean gelditu behar duenean, kutxa-tila hori zorrotenaren oinarriko erregistroa egiteko erabili behar da; ezin da sifoi motakoa izan;
 - b) loturako kutxatiletara, gehienez, hiru hodi biltzaile sar daitezke;
 - c) erregistro-kutxatiletik estalki bat izan behar dute, erraz maneiatzeko eta irekitzeko modukoa;
 - d) eraikineko putzu orokorrera hodi biltzaile bat baino gehiago heltzen bada, estradoseko kutxatila jarri behar da;
 - e) Sifoi-kutxatila gisa erabili daiteke. Aireztapen-irekidura bat izan behar du, deskarga-aldetik hurbil, eta, berebat, erregistro-estalki bat, erraz maneia daitekeena, aldiaren behin egin beharreko garbiketarako egiteko. Trenkada berezile bat baino gehiago izan dezake. Gailuren batek zuzenean bereizgailuan deskargatzen bada, dagokion itxitura hidraulikoa izan behar du. Ahal dela, sare horizontalaren amaieran jarri behar da, putzu irtena eta hargunea baino lehen. Behar bezala justifikatzen denean izan ezik, aipatutako hondakinek zuzenean eragin dieten urak baino ezin izango dira isuri koipe-bereizgailuan (koipeak, olioak eta abar).
3. Instalazioaren amaieran eta hargunea baino lehen, eraikineko putzu orokorra jarri behar da.
4. Instalazioaren amaierako muturraren kotaren eta hargune-puntuaren kotaren arteko aldea 1 m baino handiagoa denean, urak husteko barne-sarea, batetik, eta kanpoko estolda-sarea edo arazketa-sistemak, bestetik, lotzeko elementu gisa, putzu irten bat jarri behar da.
5. Hodi biltzaileak garbitzeko erregistroak elkargune eta norabide-aldaketa bakoitzean jarri eta tarte zuzenetan tartekatuta behar dira.

3.3.2 Elementu bereziak

Ponpaketa- eta goratze-sistema:

Sotoko urak eta drainatze-urak igotzeko jarri behar da, sare orokorra gorago dagoelako.

1. Barne-sarea edo haren zati bat hargune-puntuaren kotaren azpitik jarri behar denean, ponpaketa- eta goratze-sistema bat instalatu behar da. Ponpaketa-sistema horretara ezin dira euri-urak isuri, eraiki naren diseinuak hala eskatzen duenean izan ezik: isur daitezke, esaterako, barneko patioetan edo garaje/aparkalekuetara sartzeko arrapaletan jasotzen diren urak, grabitate bidezko irteera-kota baino behegaro geratzen baitira. Hargune-puntua baino gorago dauden eraikineko tokietatik datozen hondakin-urak ere ezin dira sistema horretara isuri.
2. Materia solido esekien kontrako babes egokia izan behar dute ponpek. Bi babesgailu instalatu behar dira, gutxienez, matxurarik izanez gero edota konpondu edo aldatu behar izanez gero zerbitzua eten- gabe bermatzeko. Eraikinean ekipo elektrogeno bat badago, hari konektatu behar zaizkie ponpak, edo bestela, horretarako bakarrik erabiliko den bat jarri behar da, edo gutxienez 24 orduko funtzionamendu-autonomia emateko ahalmena duen bateria bat.
3. Erregistro- eta mantentze-lanak egiteko erraz heltzeko lekuetan dauden ponpaketa-putzuetan jarri behar dira ponpaketa- eta goratze-sistemak.
4. Putzu horietan ezin dira sartu koipeak, olioak, gasolinak edo likido sukoiak dituzten urak.
5. Jasotze-andelaren airea behar bezala deskargatzeko ahalmena duen aireztapen-hodi bat izan behar dute.
6. Ekipo horien elektrizitate-hornidurak segurtasun- eta jarraitutasun-maila egokia eman behar du, eta ekipoen ezaugarriekin bateragarria izan behar du (maiztasuna, elikatze-tentsioa, lineen gehienezko intentsitate onargarria eta abar).
7. Zerbitzuaren jarraitutasunak hala eskatzen duenean (esate baterako, uholdeak, araztu gabeko isuriek eragindako kutsadura edo hustuketa-sarea ezin erabili izatea saihesteko), elektrizitatez hornitzeko sistema autonomo osagarri bat jarri behar da.
8. Haren eta kanpoko estolda-sistemaren arteko loturan, uren errefluxuaren kontrako begizta bat jarri behar da, hustuketa-sistema orokorraren irteera-maila baino gorago.

Aztera ezinezko segurtasun-balbulak:

Ez da jarri; sistema banatzailea diseinatu baita.

3.3.3 Instalazioak aireztatzeko azpisistemak

Aireztapen-azpisistemak jarri da bai hondakin-uren sarean, bai euri-uren sarean. Aireztapen primarioa erabiliko da; eraikinak 7 solairu baino gutxiago dituelako.

Aireztapen primarioko azpisistema

1. Aireztapen-sistema hori bakarrik izatea aski dute 7 solairu baino gutxiagoko eraikinek, eta orobat 11 baino gutxiagokoek baldin eta zorrotena berez dagokion baino handiagoa bada eta hustuketa-ardurak 5 m baino gutxiago badituzte.
2. Hondakin-uren zorrotenek 1,30 m luzatu behar dute eraikinaren estalkiaren gainetik, gutxienez, baldin eta estalkia ibiltzeko ez bada.
3. Aireztapen primarioaren irteera ezin da egon klimatizatuzko edo aireztatzeko edozein kanpoko aire-hargunetatik 6 m baino gutxiagora, eta hura baino gorago egon behar du.
4. Aireztapen primarioko irteeratik 6 m baino gutxiagora bizitzeko esparruetako irekigunerik baldin bada, haien gehienezko kota baino 50 cm gorago, gutxienez, jarri behar da aireztapen primarioa.
5. Gorputz arrotzik ez sartzeko behar bezala babesturik egon behar du aireztapenaren irteerak, eta haizearen ekintzak gasak errazago kanporatzeko moduan diseinatu izan behar du.
6. Ezin da zutabe-amaierarik jarri markesinen edo terrazen azpian.

4. Neurriak

1. Sistema banatzaile bati dagokion neurketa-prozedura aplikatu behar da; hau da, alde batetik, honda-kin-uren sarea neurtu behar da, eta, bestetik, euri-uren sarea, bakoitza bere aldeetik, eta ondoren, bihurtuta egokiak eginez, sistema misto baten neurriak kalkulatu behar dira.
2. Tresna sanitario bakoitzari zenbat hustuketa-unitate (HU) dagozkion erabakitzeko, erabilera publi- kokoa edo pribatukoa den hartuko da kontuan.

4.1 Hondakin-urak husteko sarearen neurriak

Proiektuaren itxituraren justifikaziorako ez da eskatzen atal hau.

4.2 Euri-urak husteko sarearen neurriak

4.2.1 Euri-uren hustuketa txikiko sarea

1. Galdaratxo baten elementu iragazlearen pasoko gainazalaren azalera, lotzen zaion hodiaren sekzio zuzena halako 1,5-2 izango da.
2. 4.6 taulan adierazten da jarri beharreko gutxienezko isurbide kopurua, zerbitzua ematen dioten instal-kiaren azalera horizontalki proiektatuaren arabera.
3. Behar beste bilketa-puntu jarriko dira 150 mm baino gehiagoko desnibelik eta % 0,5 baino gehiagoko maldarik ez izateko, eta estalkiaren gehiegizko gainkarga saihesteko.
4. Diseinu-arrazoiak direla eta, urak biltzeko puntu horiek instalatzen ez direnean, prezipitazio-urak husteko irtenbideren bat bilatuko da; adibidez, gainezkabideak jartzea.

4.6 taulak hiru isurbide behar direla zehaztu arren, lau isurbide jarriko dira eraikinaren geometriara hobeto egokitzen delako.

4.2.2 Erretanak

Euri-urak husteko sekzio erdizirkularreko erretenaren diametro izendatua, 100 mm/h-ko intentsitate pluviometrikoarentzat, 4.7 taulatik lortzen da, haren maldaren eta zerbitzua ematen dion azaleraren arabera.

Eraikinaren estalkiaren zati bat lava da, eta bertako ura zuzenean hustubideera bideratuko da; beraz, hor ez da erretenik behar. Aldiz estalki inklinatua dagoen tokian, hor erretena jarri behar da bi-isuritako estalkiaren amaieran. 4.7 taularen arabera, isuri bakoitzaren azalera ez da iristen 45m²-ra, beraz, 100mm-ko erreten erdizirkularrak jarriko dira, %1-eko maldarekin.

4.2.3 Euri-urak biltzeko zorrotenak

Euri-urak biltzeko zorroten bakoitzak zerbitzua ematen dion azalera horizontalki proiektatuaren diametroa 4.8 taulatik lortzen da. Kalkuluen arabera, 65-113 m²-ko artean ditugu azalera ia guztiak. Ondorioz, 63mm diametroan lau zorroten jarriko dira.

4.2.4 Euri-urak biltzeko hodi biltzaileak

1. Euri-urak biltzeko hodi biltzaileak sekzio betean kalkulatzen dira, erregimen iraunkorrean.
2. Euri-urak biltzeko hodi biltzaileen diametroa 4.9 taulatik lortzen da, duten maldaren eta zerbitzua ematen dioten azaleraren arabera.

4.9 taularen arabera, %2ko malda egokitzen denez proiektura, berori ondo doakion hodi biltzailea, azalera proiektatua kontuan hartuta, 125mm-koa da.

4.2 Aireztapen-sareen neurriak

4.2.1 Aireztapen primarioa

Zer zorroten luzapena den, haren diametro bera izan behar du aireztapen primarioak, nahiz eta hari aireztapen sekundarioko zutabe bat lotu.

4.5 Osagarriak

Kutxatila batek izan beharreko gutxienezko neurriak (gutxienezko luzera, L, eta gutxienezko zabalera, Z) 4.13 taulatik lortzen dira, haren irteerako hodi biltzailearen diametroaren arabera.

Kutxatilaren neurria, beraz 60x60koa izango da

4.6 Ponpatze- eta goratze-sistemen neurriak

Proiektuan goratze sistema bat behar da; hala ere, ariketa honetan ez da honen kalkulua eskatzen.

5. Eraikuntza

Proiektuari, dagokion legediari, behar bezala eraikitzeko arauak eta obraren zuzendariak eta obrako lanen zuzendariak agindutakoari jarraituz egingo da hondakin-urak husteko instalazioa.

5.1 Urak atzitzeko puntuak gauzatzea

5.1.1 Hustuketa-balbulak

1. Juntura mekaniko azkoinduen eta juntura torikoen bitartez mihizatuko dira eta lotuko zaizkio elkarri hustuketa-balbulak. Bakoitzak bere tapoia eta katea izango du, salbu automatikoak direnean edo txorrotei erantsitako gailua dutenean, eta, orobat, estankotasun-junturak izango ditu bakoitzak, tresna sanitarioari akoplatzeko.
2. Balbula guztien saretak letoi kromatuzkoak edo altzairu herdoilgaitzezkoak izango dira, harrasketan izan ezik, haietan altzairu herdoilgaitzezkoak izan behar baitute ezinbestean. Saretaren eta balbu-laren arteko lotura egiteko, balbularen gorputzean txertatutako letoizko azkoinari altzairu herdoil-gaitzezko torloju hariztatuko zaio.
3. Balbulak ezingo dira manipulatu muntatzean, eta debekatuta dago haiek lotzeko masilla erabiltzea. Hodia polipropilenoakoa denean, ez da likido soldatzaile erabiliko.

5.1.2 Sifoi indibidualak eta sifoi-potoak

1. Bai sifoi indibidualak, bai sifoi-potoak, kasu guztietan, instalatuak dauden lokaletik bertatik noiz-nahi erraz iristeko tokian egongo dira. Itxitura hidraulikoak ez dira egongo haietara iristea eta mantentze-lanak egitea eragozten duten trenkaden, forjatuen eta abarren atzean edo azpian. Forjatuetan landatutako sifoi-potoak kondizio saihetsezinetan eta diseinuak hala justifikatutakoetan baka-rik erabil daitezke.
2. Sifoi indibidualak tapoi hariztatua duen erregistro-gailu bat izango dute hondoa, eta tresna sanita-rioren deskarga-balbulatik ahalik eta hurbilen edo tresna sanitarioan bertan instalatuko dira, giroa-ekin kontaktua duen hodi zikinaren luzera alibait laburtzeko.
3. Hustuketa-balbularen eta sifoiaren koroaren arteko gehienezko distantzia, norabide bertikalean, 60 cm edo gutxiagokoa izango da, zigilu hidraulikoa gal ez dadin.
4. Sifoi indibidualak instalatzen direnean, dagozkien itxitura hidraulikoen garaieraren arabera txikitik handira jarriko dira, ahokaduratik hasi eta zorroteneraino edo, hala badagokio, komun-hodiraino, non gainerako gailuak amaituko baitira, haietariko bakoitzaren isurbidean ahalik eta desnibelik handiena aprobetxatuz. Zorrotenetik hurbilen kokatu beharrekoa, beraz, bainuontzia izango da; gero bideta, eta, azkenik, konketa(k).
5. Ezin da instalatu hurupaketen kontrako sifoirik; ez eta duen diseinuagatik zigilu hidraulikoa sifona-mendu bidez hustea ahalbidetu dezakeen beste sifoirik ere.

5.1.3 Galdaratxoak edo kaxolak eta hustubideak

1. Galdaratxoaren ahoaren azalera % 50 handiagoa izango da, gutxienez, zerbitzua ematen dion zorrotenaren sekzioa baino. Sakonera 15 cm izango du, gutxienez, eta 5 cm teilakatuko da zoladuraren azpian, gutxienez. Saretak izango dituzte; ibiltzeko estalkietan, lauak, eta ibiltzeko ez direnetan, beriz, esferikoak.
2. Bai zorroten mistoetan, bai euri-uren zorrotenetan, galdaratxoa zorrotenarekiko paraleloan instalatuko da, aireztapen-zutabearen funtzionamendua bermatzeko.
3. Euri-urak biltzeko hustubideak, nola estalkietan, hala terrazetan eta garaieetan, sifoi motakoak izango dira, eta 100 kg/cm²-ko pisuari modu iraunkorrean eusteko ahalmena izango dute. Iragaz-gaizgarriaren eta hustubidearen arteko zigilatze estankoa estutze mekanikoz egingo da, hustubi-dearen estalkia haren gorputzari «brida»-z estutuz. Halaber, iragazgaizgarria material plastikoko brida batekin babestuko da.
4. Hustubideak, muntaketan, aukera emango du zoruaren lodiera-desberdintasunak berdintzeko (90 mm bitartekoak).
5. Sifoi-hustubidea zorrotenetik 5 m-ra edo gutxiagora jarriko da, eta bermatuko da estalkiaren ezein puntutan ez dela gainditzen 15 cm-ko garaierako maldako hormigoia. Diametroa 1,5 handiagoa izango du ura husten duen zorrotenarena baino.

5.1.4 Erretanak

1. Erretanak, oro har, eta jarraian adierazten diren zehaztapenetan izan ezik, % 0,5eko gutxienezko maldarekin jarriko dira, kanpoalderantzko malda txiki batekin.
2. Zinkeko erretanak eraikitzeko, piezak perimetro guztian soldatuko dira; txapari eutsiko dion besar-kagailuak haren formari doitu zaizkio, eta altzairu galvanizatuzko pletinaz egingo dira. Eusteko elementu horiek gehienez 50 cm-lik behin jarriko dira eta teilatu-hegaleko teilatuetatik gutxienez 15 mm barrura.
3. Plastikozko erretenetan, % 0,16ko gutxienezko malda ezar daiteke. Erreten horietan, gomazko juntura duen lotzeko zorrotarekin lotuko dira profilak. Eusteko kakoen arteko gehienezko tartea ez da 1 m baino handiagoa izango, zorrotentzat eta loturentzat lekua utziz, nahiz eta elur-guneetan distantzia hori 0,70 m-ra murriztuko den. Haren osagarri guztiek 10 mm-ko dilatazio-tartea izan behar dute, gutxienez.
4. Sare bertikal erantsiko hodi biltzaile orokorrera doazen erretenen lotura, hala dagokionean, sifoi-hustubidearen bitartez egingo da.

5.2 Hustuketa txikiko sareak gauzatzea

- Sareak estankoak izango dira, eta ez dute ez exudaziorik ez buxatzeko arriskurik izango.
 - Ez da bat-bateko norabide-aldaketarik egingo, eta pieza berezi egokiak erabiliko dira. Ez dira bi adar aurrez aurre jarriko hodi kolektibo beraren gainean.
 - Bridekin edo kakoekin eutsiko zaie; 50 mm gainditzen ez duten diametroko hodiekin, 700 mm-tik behin jarriko dira brida edo kako horiek, eta, diametro handiagoa dutenetan, berriz, 500 mm-tik behin. Paramentu bertikalei lotzen zaizkienean, paramentuok 9 cm lodi izan behar dute, gutxienez. Forjatuen esekitzeko besarkagailuek barne-forru elastikoa izan behar dute eta erregulagarriak izan behar dute, malda egokia emateko.
 - Hodi landatuen kasuan, isolatu egingo dira, korrosioak, zapaltzeak edo isuriak ekiditeko. Era berean, ez dira obrara elementu zurrunean atxikita geldituko, hala nola igeltsuekin edo morteroekin.
 - Uren erasokortasuna dela eta, gresezko hodiak erabiliz gero, eusteko elementua ez da zurruna izango; ez da morterorik erabiliko, eta horren ordez kordoi bikeztatu bat erabiliko da eta gainerakoa asfaltozko betegarriz beteko.
 - Forjatuek edo edozein egitura-elementu zeharkatzeko, material egokiko kontrahodiak erabiliko dira, eta gutxienez 10 mm-ko lasaiera utziko da, zeina asfaltozko masillaz edo material elastikoz trinko- tuko baita.
- Komun-hodia plastikozkoa denean, zigilatze hermetikoko kautzuzko juntura-sistema baten bitartez akoplatuko zaio gailuaren hustubideari

5.3 Zorrotanak eta aireztapen-sareak gauzatzea

5.3.1 Zorrotanak gauzatzea

- Obran galgaturik eta finkaturik geratzeko moduan egingo dira zorrotanak; obraren lodiera ez da 12 cm baino txikiagoa izango, eta forjatuen artean gutxienezko euste-elementuak izango ditu. Ahoka- dura aldean finkatuko da zorrotana, besarkagailu batekin, hodiaren tarte bakoitza autosostenga- tzailea izan dadin, eta tarteko guneeetan gidatzeko besarkagailu bat jarriko da. Besarkagailuen arteko distantziak diametroa halako 15 izan behar du, eta taula hau har daiteke erreferentzia gisa, 3 m-ko hodientzat:

Hodiaren diametroa (mm)	40	50	63	75	110	125	160
Distantzia (m)	0,4	0,8	1,0	1,1	1,5	1,5	1,5

- Hodien eta PVCzko zorrotanen pieza berezien loturak itsaspen handiko kola sintetiko iragazgaizga- rriekin zigilatuko dira, sabelean 5 mm-ko lasaiera utziz; alabaina, juntura elastikoarekin ere egin daiteke lotura.
- Polipropilenozko zorrotanetan, hodiaren eta osagarrien arteko lotura, muturretako bat soldatuz eta beste muturrean juntura lerrakorra (eraztun egokigailua) jarri egingo da; hodia sabelaren ibiltarte erdian muntatuko da, sortzen diren zabalkuntzak eta uzkurdurak absorbatu ahal izateko.
- Gresezko hodientzat eta piezentzat, ahokadura eta kordoi bidezko junturak egingo dira. Kordoa soka bikeztatuarekin edo antzeko beste paketatze mota batekin inguratuko da. Mutur hori sabelari edo ahokadurari gehituko zaio, kokapen egokia finkatuz eta paketatze hori estutuz, halako moldez non sabelaren garaiera osoaren laurdena beteko baitu. Gainerako tartea zementuzko morteroz eta erreka harez beteko da, 1:1 proportzioan. Mortero hori kordoiaren piezaren kontra trinkotuko da, lantzerka.
- Burdinurtuzko zorrotanen junturak ahokatzu eta kordoi bidez egingo dira, eta sabelaren eta kordoiaren arteko tartea paketatze batekin beteko da, zeina 25 mm-ko sakonera askea uzten duen arte trinkotuko baita. Era berean, bridak erabil daitezke loturak egiteko, bai hodi arruntetan, bai pieza berezietan.
- Zorrotanak, edozein kasutan, paramentuetatik bereizita egongo dira; batetik, aurrerago konponketak eta akaberak egin ahal izateko, eta, bestetik, zorrotanen kanpoaldean izan daitezkeen kondentsa- zioek kalterik egin ez diezaieten.
- Talkak jasateko nolabaiteko ariskua duten ageriko zorrotenei, edozein materialez egindakoak direla ere, talka horiek ahalik eta neurri handienean saihesteko babesgari egokia jarriko zaie.

5.3.2 Aireztapen-sareak gauzatzea

- Iragazgaizgarriaren eta hodiaren arteko errematearen estankotasun iraunkorra bermatzeko, dagokien osagari estandarra izango dute aireztapen-sistema primarioek.
- Aireztapen-zutabea paraleloa duten zorrotan mistoetan edo hondakin-uren zorrotanetan, zutabea zorrotanetik albait hurbilen muntatuko da; biak elkarri lotzeko, zorrotanaren material bereko osagari estandarrek erabiliko dira, zeinek, bi eroanbideetan, zorrotanaren eta aireztapenaren, sortutako zabal- tzeak absorbatzea bermatu behar baitute. Bien arteko lotura hori, edozein kasutan, ur-emariaren kontrako norabidean egingo da, ura aireztapen-zutabearen sar ez dadin.
- Forjatuek zeharkatzeko kondizioak zorrotenei aplikatutako berak izango dira, duten materialaren arabera. Era berean, gutxienez 9 mm lodiko horma batera finkatuko da aireztapen-zutabea, besarka- gailuen bidez; hodi bakoitzari gutxienez bi besarkagailu jarriko zaizkio, gehienez 150 cm-ko tartea utziz.

5.4 Gandolak eta hodi biltzaileak gauzatzea

5.4.1 Sare horizontal esekia gauzatzea

Proiektuan ez da jarriko sare-horizontal esekirik.

5.4.2 Sare horizontal lurperatua gauzatzea

- Zorrotanaren eta kutxatilaren arteko lotura zorro lerrakor baten bidez egingo da, hura alde zuzenetik harez estalita eta kutxatilarekin berdinduta. Harez estali ondoren, posible izango da kutxatilarekin zementuzko morteroz berdintzea, hartara lotura estankoa bermatuz.
- Distantzia luzea baldin bada zorrotanetik zorrotanaren oinarriko kutxatilara, mugimendua mugatuko dion eta, ondorioz, mentsula gisa funtzionatzen utziko ez dion euskari egoki baten gainean jarriko da bien arteko hodi-tartea.
- Zangen barruan hodi-tarteak elkarri lotzeko, kontuan hartuko dira bai materialen bateragarritasuna, bai haien arteko lotura motak:
 - hormigoizko hodientzat, masa-hormigoizko krisketen bidez egingo dira loturak;
 - PVCzko hodientzat, ez da onartuko hainbat elementu soldatuz edo itsatsiz fabrikatutako lotu- rarik; hodien arteko loturak egiteko, ahokatu egingo dira edota kordoiak jarriko dira, gomazko junturadunak edo eranskailuen bidez itsatsiak.
- Sarearen inguruko landareen sustraiak sarera sar daitezkeenean, hori ez gertatzeko neurri egokiak hartuko dira; esate baterako, geotestilezko mailasareak jarriko dira.

5.4.3 Zangak egitea

- Lurraren ezaugarrien arabera eta lurperatu beharreko hodien materialen arabera egingo dira zangak. Material plastikoko hodiak lurra baino deformagarriagoak direla joko da, eta burdinurtuzkoak, hormigoizkoak eta gresezkoak, beriz, lurra baino gutxiago deformatzen direla joko da.
- Hargatik eragotzi gabe beharrezkoa izan daitekeen lurrari buruzko azterketa zehatza, honako neurri hauek hartuko dira oro har:

Material plastikoko hodientzako zangak

- Zangek horma bertikalak izango dituzte; haien zabalera hodiaren diametroa gehi 500 mm izango da, eta, gutxienez, 0,60 m.
- Sakonera proiektuan zehaztuko da, emandako malden arabera. Hodia galtzadaren azpitik pasatzen bada, hodiaren bizkarretik lurzoru-mailara, gutxienez, 80 cm-ko sakonera egongo da.
- Hodiak, luzera osoan, gutxienez 10 + kanpo-diametroa / 10 cm-ko lodiera duen material pikortsuko (harea/legarra) edo haririk gabeko lurrezko ohe baten gainean bermatuko dira. Alboak trinkotu egingo dira eta loturak agerian utziko, harik eta estankotasun-probak egiten diren arte. Betegarria 10 cm-ko geru- zaka egingo da, trinkotuz, azken isuria eta amaierako trinkotzea egingo den goiko mailatik 30 cm-raino.
- Lur ez oso trinkoen kasuan, hormigoizko ohe bat izango da zangaren oinarria, haren luzera osoan. Hormigoizko ohe horren lodiera 15 cm izango da, eta, haren gainean, aurreko paragrafoan deskriba- tutako ohea jarriko da.

5.4.5 Hodi lurperatuen lotura-elementuak gauzatzea

Kutxatilak

- In situ fabrikatzen badira, barrutik zarpiatutako eta txartatutako oin-erdiko lodierako adreiluzko fabrika trinkoarekin eraiki daitezke, 10 cm lodiko H-100 motako hormigoizko zolata baten gainean bermatuko dira, eta 5 cm lodiko hormigoizko aurrefabrikatuzko estalki batekin estaliko dira. Hormigoiz egindako lodiera 10 cm izango da. Kutxatilaren estalkiak gomazko juntura hermetikoa izan behar du, usainik eta gasik irten ez dadin.
- Husteko kutxatilak, angeluarren gainean bermatutako sareta metalikoarekin estaliko dira. Husteko kutxatila horiek neurri handikoak direnean, garajeetako arrapaletako kasuan bezala, sareta laua desmuntagarria izango da. Ura kutxatilaren albo batetik ateratzen da, gutxienez 110 mm-ko diame- troko isurbide batetik. Isurbidetik, sifoi-kutxatila batera edo koipe- eta lohi- bereizgailu batera isur- tzen da ura.
- Sifoi-kutxatiletan, uren irteera-eroanbidean 90°-ko ukondo bat jarriko da, eta ur-xaflaren lodiera 45 cm izango da.
- Alboko hormetako loturak ertz erdibiribilez egin behar dira, txokoetan materia solidorik metatu ez dadin. Era berean, sarreraren eta irteeraren artean, hormigoizko ohe baten gainean maldan egindako erdibiribiletatik eroango dira urak.

Putzuak

In situ fabrikatuko direnez, barrutik zarpiatutako eta txartatutako 1 oin lodiko adreiluzko fabrika tri koarekin eraikiko dira. 20 cm lodiko H-100 motako hormigoizko zolata baten gainean bermatuko da, eta ireki daitezkeen burdinurtuzko estalki hermetikoko batekin estaliko da. Aurrefabrikatuek antzeko prestazioak izango dituzte.

Bereizgailuak

- In situ fabrikatuko direnez, barrutik zarpiatutako eta txartatutako 1 oin lodiko adreiluzko fabrika trin- koarekin eraikiko dira. 20 cm lodiko H-100 motako hormigoizko zolata baten gainean bermatuko da eta ireki daitezkeen burdinurtuzko estalki hermetikoko batekin estaliko da.
- Bereizgailua hormigoiz egina izanez gero, 10 cm izan behar du, gutxienez, hormen lodierak, eta 15 cm zolatarenak.
- Husteko baldintzak direla eta, hala eskatzen denean, bi tratamendu-etapak bereizgailu bat erabiliko da: lehenengo etapan, lohia bereizteko putzu bat egingo da, eta han bilduko dira materia larriak; biga- rren etapan, koipeak bereizteko putzu bat egingo

da, eta haren hondoan metatuko dira materia arinak.

4. Edozein kasutan, aireztapen eraginkorra izan behar dute, 100 mm-ko hodi batekin, zeina eraikinaren estalkiraino helduko baita.
5. Estaldura-materiala eraso ezinezkoa izango da, eta material zeramikoz edo beiratzatuz egin daiteke.
6. Bereizgailura doan elikatze-eroanbideak sifoi bat izango du; bereizgailuko uraren maila baino 5 cm gorago egon behar du haren beheko sortzaileak. Gainera, barneko lehenengo trenkadaren eta elika- tze-eroanbide horren arteko distantziak 10 cm izan behar du. Trenkadek mugiezinak izan behar dute, olioaren maila baino 20 cm gorago iritsi behar dute, eta beste 20 cm izan behar dute, gutxienez urpean. Trenkaden arteko tartekak koipe-bereizgailuaren zabalera osoa bezainbestekoa izan behar du, gutxienez. Urak husteko eroanbideak gres beiratzatuzkoak izango dira, eta gutxienez % 3ko malda izango dute, sare orokorrera azkar hustu ahal izateko.

5.5 Ponpatze- eta goratze-sistemak gauzatzea

5.1.1 Jasotze-andela

1. Hondakin-urak metatzeko andelak estankoa izan behar du, usain txarrak irteten ez uzteko, eta airez- tapen-hodi bat izango du, zeinaren diametroa hargunearen diametroaren erdia izango baita eta, gutxienez, 80 mm.
2. Oinplanoa, ahal dela, sekzio zirkularrekoa izango du, materia solidorik ez metatzeko.
3. Gutxienez 10 cm-ko tartea geratu behar du andeleko uraren gehieneko mailaren eta hargune-ho- diaren beheko sortzailearen edo hargune-hodien beheko sortzaileen zatiirik behearen artean, urpetu ez daitezen eta aireak zirkula dezan.
4. Gutxienez 20 cm-ko tartea utzi behar da andeleko uraren gutxieneko mailaren eta hondoaren artean, ponparen xurgapen-ahoa urpean egon dadin beti. Dena den, fabrikatzailearen eskakizun zehatzen arabera, kota hori aldatu egin daiteke.
5. Garaiera osoa 1 m izango da, gutxienez; eta, andelaren sakonera osoa lortzeko, zoruaren mailaren eta hodiaren beheko sortzailearen arteko kota-desberdintasuna gehitu beharko zaio garaiera horri.
6. Urpeko ponpak erabiltzen direnean, hobi batean sartuko dira, xurgapen-ahoa baino beheago ahalik eta ur-kantitate txikiena gelditzeko. Forma bera izan dezake tangaren hondoak bi ganbera daude- nean, bata urak jasotzeko (hobi hezea) eta bestea ponpak sartzeko (hobi lehorra).
7. Tangaren hondoak % 25eko malda izan behar du, gutxienez.
8. Tangara sartzen den aire-emariak ponpara sartzen dena bezalakoa izan behar du.

5.1.2 Goratze- eta kontrol-gailuak

1. Uretan dauden materia solido esekien kontra behar bezala babesteko diseinua izango dute ponpek.
2. Ponpa abiarazteko eta geldiarazteko, maila-etengailuak erabiliko dira; goiko eta beheko mailetan instalatuak, hurrenez hurren. Orobat, goiko mailaren gainetik alarma-maila bat eta gutxieneko mailaren azpitik segurtasun-maila bat instalatuko dira.
3. Bi ponpa edo gehiago badaude, etengailu kopurua proportzionalki biderkatuko da. Horrez gain, ponpei txandaka funtzionarazteko gailu bat instalatuko da, ponpen funtzionamendu sekuentziala eragingo duena, hartara erabilera-egoera berdinean mantentzen daitezkeen.
4. Ekipoek flotatzeko arriskua dutenean, arrisku hori saihesteko, dauden tokira finkatuko dira. Hobi lehorrik izanez gero, mantedze- lanak behar izan ditzaizkien zatien edo osagaien inguruan eta gainean, gutxienez 600 mm-ko toki izango du hark. Era berean, gutxienez 100 mm-ko diametroko hustubidea, aireztapen egokia eta gutxienez 200 lux-eko argiztapena izango ditu hobi lehorrak.
5. Ponpaketa- eta goratze-sistemako hodien lotura guztiak zaratak eta bibrazioak pasatzen ez uzteko beharrezko diren elementuak izango dituzte. Goratz-hondarrak dituen jasotze-andela ez da eraiki- naren egituraren banean egongo.
6. Ekipoaren sarreran, ixteko giltza bat jarriko da, eta orobat irteeran eta euste-balbularen ondoren. Sistemako deskarga-hodian ez da loturarik izango. Deskarga-hodia ez zaio ezein zorroten lotuko. Husteko hodi biltzailearekin grabitatez egingo da lotura, beti. Deskarga-hodian ez da aireztatze-bal- bularik jarriko.

5.6 Probak

5.6.1 Estankotasun partziala aztertze probak

1. Estankotasun partziala aztertze probak egingo dira, gailuak banan-banan edo aldi berean deskar- gatz, eta hauek egiaztatuz: urak husteko denborak, gailuan bertan edo sareari loturiko beste gailuetan gertatzen diren sifoi-fenomenoak, hustubideetako eta hodiak zaratak, eta itxitura hidraulikoak.
2. Ez da onartuko gailu baten sifoiaren itxitura hidraulikoa 25 mm-tik beheko garaieran geratzea.
3. Hustuketa-probak egiteko, gailuen txorrotak irekiko dira, haietariko bakoitzari dagokion gutxieneko emariarekin, eta hustuketa-balbula ere irekiko da; minutu batez, gutxienez, gailuan ez da urik metatuko.
4. Sare horizontalean, hodiaren tarte bakoitza probatuko da; tarteen estankotasuna bermatzeko, presio- peko ura (0,3-0,6 bar bitartean) sartuko da hamar minutuz.
5. Erregistro-kutxatilik eta -putzuek ere proba berdina pasatu beharko dituzte, lehenik urez betez eta ondoren maila jaisten den edo ez behatuz.
6. Loturak, elkartuneak edo/eta adarrak % 100ean kontrolatuko dira.

5.6.2 Guztizko estankotasuna aztertze probak

Sistema osoa aztertze probak egin behar dira, eta guztia batera nahiz zatika egin daiteke, ondoko jarraibideen arabera.

5.6.3 Urarekin probatzea

1. Hondakin-urak eta euri-urak husteko sareetan egingo dira probak urarekin. Horretarako, urak husteko hodien amaiera guztiak buxatu egingo dira, estalkioak izan ezik, eta sareak urez beteko da, gainezka egon arte.
2. Sareko edozein zatik jasan beharrezko presioa ezin da izan 0,3 bar baino txikiagoa eta 1 bar baino handiagoa.
3. Sistemak 1 bar-en baliokidea baino garaiera handiagoa izanez gero, probak faseka egingo dira, sare bertikalki zatitan banatuz.
4. Sarea zatika probatzen bada, 0,3-0,6 bar bitarteko presioekin egingo da, jarioak atzemateko nahi- koak baitira.
5. Aireztapen-sarea proba egiten den unean egiten bada, urak husteko sare osoari aplikatutako erre- gimen bera aplikatuko zaio.
6. Proba ez da bukatutzat joko harik eta loturetako bakar batek ere urik galtzen ez duela egiaztatuta arte.

5.6.4 Airearekin probatzea

1. Airearekin egin beharrezko proba urarekin egindakoaren modu bertsuan egingo da. Desberdintasun bakarra da sareak jasan beharrezko presioa 0,5-1 bar bitartekoa izango dela.
2. Proba gainditu dela joko da presioa hiru minutuz konstante mantentzen bada.

5.6.5 Kearekin probatzea

1. Hondakin-uren sarean eta haren aireztapen-sarean egingo dira probak kearekin.
2. Ke lodia eta usain handikoa sortzen duen produktu bat erabili behar da.
3. Produktua makinaren edo ponpen bitartez sartuko da, itxitura hidrauliko guztiak urez bete ondoren, sistemaren beheko aldeetik, eta beharrezkoa izanez gero, toki bat baino gehiagotatik, sistemara guztiz hedatzeko.
4. Kea sistemaren estalki-amaieretan agertzen hasten denean, amaierok buxatu egingo dira, 250 Pa-eko gas-presioa mantentzeko.
5. Sistemak, martxan ari den bitartean, ± 250 Pa-eko presio-gorabeherak jasan behar ditu, horretarako diseinatu baita, itxitura hidraulikoetan estankotasunik galdu gabe.
6. Proba gainditu dela joko da eraikinaren barnealdean kerik eta usainik sumatzen ez bada.

6. Eraikuntza-produktuak

6.1 Materialen ezaugarri orokorrak

Oro har, instalazioentzat zehaztutako materialek ezaugarri hauek izango dituzte:

- a) Hustu beharrezko uren erasokortasun handiarekiko erresistentzia.
- b) Likidoekiko eta gasekiko iragazgaitasun osoa.
- c) Kanpo-kargetikiko erresistentzia nahikoa.
- d) Haien mugimenduak absorbatu ahal izateko malgutasuna.
- e) Barne-lautasuna.
- f) Urradurakiko erresistentzia.
- g) Korrosioarekiko erresistentzia.
- h) Zaratak absorbatzea, sortutakoak eta transmititutakoak.

6.2 Hodien materialak

Jada ezarritakoari jarraikiz, hondakinak husteko instalazioetako hodiekin, egokiak izateko, arau hauetan ezarritako berariazko ezaugarriak bete behar dituzte:

- a) Burdinurtzuko hodiekin, UNE EN 545:2002, UNE EN 598:1996 eta UNE EN 877:2000 arauetan ezarritakoa.
- b) PVCzko hodiekin, UNE EN 1329-1:1999, UNE EN 1401-1:1998, UNE EN 1453-1:2000, UNE EN 1456-1:2002 eta UNE EN 1566-1:1999 arauetan ezarritakoa.

6.3 Urak atzitzeko puntuen materialak

6.3.1 Sifoiak

Lauak izango dira eta hustutako urekiko material erresistentea izango dute, 3 mm lodikoa, gutxienez.

6.3.2 Galdaratzkoak

Estankotasun- eta erresistentzia-kondizioak betetzen dituen, eta estalkiko, terrazako edo patioko materialei ezin hobeto egokitzen zaien edozein materialetakoak izan daitezke.



6.4 Osagarrien materialen kondizioak

Baldintza hauek beteko dituzte:

- a) Instalazioak ezin hobeto gauzatzeko beharrezkoa den edozein elementu mekanikok edo ez meka- nikok, materialari dagokionez, osatuko duen hodiari eskatutako baldintza berak beteko ditu.
- b) Estalkiak, hustubideak, balbulak eta abar egiteko burdinurtuzko piezek burdinurtuzko hodientzat ezarritako baldintzak beteko dituzte.
- c) Bridak, begiztak eta zorrotenak finkatzeko gainerako elementuak burdin metalizatuzkoak edo galvanizatuzkoak izango dira.
- d) Material plastikoko zorrotenak direnean, besarkagailuaren eta zorrotenaren artean plastikozko zorro bat jarriko da.
- e) Betekizun horiek beteko ditu, orobat, instalazioa egiteko erabiltzen den burdineria guztiak, hala nola putzuetako eskailera-mailek, erregistro-estalkietako azkoinek eta presio-bridek eta abarrek.

7. Mantentze- eta kontserbazio-lanak

1. Saneamendu-instalazioak behar bezala funtzionatzeko, aldian-aldian egiaztatu behar dira sarearen estankotasun orokorra, izan ditzakeen isuriak, usainak eta gainerako elementuen egoera.
2. Hustuketa-emaria nabarmen gutxitzen denean, edo buxadurak daudenean, sifoiak eta balbulak aztertu eta libratuko dira.
3. 6. hilabetean behin, garbitu egingo dira lokal hezeetako eta ibiltzeko estalkietako hustubideak eta, orobat, sifoi-potoak. Ibiltzeko ez diren estalkietako hustubideak eta galdaratxoak urtean behin garbitu dira, gutxienez. Urtean behin berrikusiko dira hodi biltzaile esekiak, eta garbituko dira husteko kutxatilkak eta instalazioko gainerako elementuak, hala nola erregistro-putzuak eta goratze-ponpak.
4. 10 urtean behin, edo usainak atzematen direnean, garbitu egingo dira zorrotenaren oinarriko kutxa- tilak, loturako kutxatilkak eta sifoi-kutxatilkak.
5. 6 hilabetean behin, garbitu egingo da koipe- eta lohi-bereizgailua (baldin bada).
6. Hustubideetan, sifoi-potoetan eta sifoi indibidualetan beti egongo da ura, usain txarrik sor ez dadin; horrez gain, terrazetan eta estalkietan daudenak garbitu egingo dira.



URAK HUSTEA LEGENDA	
	Zorrotena Ø63
	Hustubidea
	Eroanbide horizontala (hodi itxia)
	Estalki-azaleraren malda
	Estalki-azalera
	Erretena
	Luzetarako hodi biltzailea

INSTALAZIO- ETA ATONDURA-ATALA

_Bete beharreko araudia	45 or.
_Suteetatik babesteko segurtasuna	46-56 or.
_Itxituren azterketa termikoa	57-78 or.
_Klimatizazioa eta aireztapena	79-114 or.
_Argiztapena	115 or.
_Ur-hornidura eta saneamendua	116 or.

BETE BEHARREKO ARAUDIA

SUTETATIK BABESTEKO INSTALAZIO ETA ATONDURAK

EKT_OD_SS. Suteetatik babesteko segurtasuna.
842/2013 Errege dekretua. Eraikuntza materialek bete beharreko araudia.

ITXITUREN AZTERKETA TERMIKOA

EKT_OD_HE1. Energia aurreztea: Energia eskaria mugatzea.

KLIMATIZAZIOA eta AIREZTAPENA

EKT_OD_HE. Energia aurreztea.
EKT_OD_HO 3. Osasungarritasuna: Barruko airearen kalitatea.
RITE_Eraikinetako Instalazio Termikoei Buruzko Araudiak.

UR-HORNIDURA

EKT_OD_HO 1. Osasungarritasuna: Hezetasunaren kontrako babesa.
EKT_OD_HO 4. Osasungarritasuna: Ur-hornidura.

UR BERO SANITARIOA

EKT_OD_HO 4. Osasungarritasuna: Ur-hornidura.

SANEAMENDUA

EKT_OD_HO 5. Osasungarritasuna: Urak hustea. + C eranskinetako UNE arauak.

ELEKTRIZITATEA

REBT_Tentsio baxuko erregelamendu elektronikoa.

ARGIZTAPENA

EKT_OD_HE3. Energia aurreztea: Argiztapen-instalazioen eraginkortasun energetikoa
EKT_OD_ESI 4. Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna:
Argiztapen desegokiak eragindako arriskutik babesteko segurtasuna.
UNE-12464-1 araua: Lantokien argiztapena.

AKUSTIKA

EKT_OD_HZ. Zarataren kontrako babesa

HONDAKINAK

EKT_OD_HO 2. Osasungarritasuna: Hondakinak jasotzea eta hustea.

IRISGARRITASUNA

EKT_OD_ESI 9. Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna: Irisgarritasuna.
68/2000 dekretua.

_proiektua

SORKUNTZA-ZENTROA ETA KAFE-ANTZOKIA TOLOSAN
Zumalakarregi pasealekua 2, 24000 Tolosa (Gipuzkoa) HAPO_Laskoain 13

_ikaslea

XABIER ARTOLA AMONARRIZ

_ikasturtea

ARKITEKTURA MASTERRA_2019-2020
Donostiako Arkitektura Goi-Eskola Teknikoa, EHU/UPV

_ematea

MASTER AMAIERAKO LANA
2020ko ekainaren 30ean, Donostian.

_liburua

GARAPEN TEKNIKOA
Egitura - Eraikuntza - Instalazioak



_A3

_atala

BETE BEHARREKO ARAUDIA
INSTALAZIOAK ETA ATONDURAK

_orria

45

SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOAK ETA ATONDURAK

_EKT_OD_SS. Suteetatik babesteko segurtasuna.
_842/2013 Errege dekretua. Eraikuntza materialek bete beharreko araudia.

Deskribapena

Eraikinean bi erabilera nagusi bereizten dira: batetik, sorkuntza-zentroa lur-arrasetik gora, eta, bestetik, berriz, kafe-antzokia lur-arrasetik behera; bada, sute-sektoreak ere hala bereizi dira. Eraikinaren instalazio eta atondurak diseinatzeke eta kalkulatzeko garaian, elkargune publiko gisa hartu da EKTaren arabera, ondorioz, erabilera horri ezarritako atondurak eta baldintzak bete dira.

Irteera-ibilbide eta eskailerei dagokienez, eraikineko eskailera nagusia babestua da; ondorioz, EKTak zehaztu bezala, eskaileren atera arte (solairuko irteera) 25m baino gutxiago dituzte ibilbide guztiek sorkuntza zentroan -eskailera bakarra duelako eta 100 pertsona baino gutxiagoko okupazioa duelako solairuko-. Kafe-antzokian aldiz, aurrekusi zen hasieran okupazioa handia izango zela, horregatik, bi eskailera babestu ditu: bata, aurrez aipatutako eskailera nagusia, eta, bestea, berriz, larrialdietan bakarrik erabiliko den bigarren eskailera babestu bat, zeinak zuzenean kanpo-espazio segurura eramango dituen erabiltzaileak. Kafe-antzokian irteera-ibilbideek 50m baino gutxiago dituzte. Bestalde, patioetik ere irteera izango du kalera zuzenean.

Erabileraren arabera okupazioa-kalkulua nola egin den azaltzen duen taula, SS3 atalean dago ikusgai.

Eskaileren dimentsionamenduari dagokionez, proiektuaren alde jarri nahi izan dira araudiak ezarritako baldintzak, horregatik, eskailera nagusiaren zabalarekin jokatu da: sototik hasita eraikinaren azken solairura arte eskaileren eta barandaren zabalera estutu egiten da, beti ere, aintzat hartuta betetzen direla SS3 atalak ezarritako baldintzak. Helburua da arkitektura-espazio interesgarriago bat sortzea, angelu eta altuera ezberdinetako ikuspegiak eskaintzea erabiltzaileari, eta etekin gehiago ateratzea gainean kokatzen den argi-zuloko argitasunari, besteak beste. Bestalde, eskailera nagusian hiru leiho ez-irekigarri kokatzen dira ondoko espazioa ikustea ahalbidetzen dutenak; baina eskailera babestua denez, suarekiko erresistentzia duen beira erabiliko da. Eskailerari dagozkion neurri-kalkuluak SS3 atalean zehazten dira.

Eskailera babestuen kasuan, EKTak zehazten du erabiltzaileen ebakuazioa beheranzkoa denean, ez dela beharrezkoa eraikineko irteera dagoen solairuan eskailera ixtea/banatzea, baldin eta arrisku txikiko sektore batera irekitzen bada; eta, espazio bat arrisku txikiko sektore izateko, okupaziorik gabeko zirkulazio-espazio bat izan behar du. Proiektuaren kasuan, espazio horri harrera izendapena eman zaion arren, eta harrera-langile batentzako postua jarri den arren, lanpostu hori aldizkakoa izango da; hau da, ekitaldi bereziren bat dagoenean bakarrik erabiliko da ordu gutxi batzuetan. Horrenbestez, okupaziorik gabeko espazioa dela jo da, eta, ondorioz, behe-oinean eskailera irekia egin da.

Arrisku bereziko lokalen ezaugarriak zehazterakoan, instalazio-gela arrisku handikotzat jo da, eta, ondorioz EKTak zehaztu bezala, bereizte-atarteak jarri da. Gero, eraikinak beste arrisku txikiko hiru lokal ditu, eta hauek bereizte-atarterik behar ez duten arren, bereizte-atarte berean sartu dira. Erabaki horrek bi ondorio nagusi ditu: bata, malgutasun handiagoa emango dietela lokal guztiei erabilerak aldatzen bazaizkie etorkizunean -babes handiagoa eman zaienez, denak arrisku handikoak bihurtu dira-; bestea, berriz, barne-banaketak garbiagoak direla eraikinaren erabilerari erreparatuz gero.

Suteen aurkako atondura osatzeko honako elementuak erabili dira proiektuan:

Lehenik eta behin, **alarma-sistemaren zentralita** jarri da 00 solairuan. Eraikinak bi erabilera dituen, eta hain justu biek elkarbanatzen duten espazio nagusia sarrera denez, bertan jartzea erabaki da gelatxo batean; izan ere, komeni da egotea erraz iristeko leku batean,



BIEak, alarma-sakagailuak eta su-itxalgailuak solairuro ia leku berean kokatzen direnez (igogailuaren ondoan), estetikoki txukun geratzeko hautua egin da; horregatik, "Plana Fabrega" etxearen armairuak jarriko dira. Horman sartuta egongo dira eta armairuen tapa hormaren plano berean egongo da. Araudiak zehaztu bezala, armairuaren tapan seinalea jarriko da.



Bestalde, **su-itxalgailu** gehigarriak jarri behar izan direnetan ere, armairu zuria dutenak hautatu dira, -kanpoan seinalea dutela, noski-.



Su-detekttagailuak jartzeko garaian, bi mota bereizi dira: batetik, **ke-detekttagailu optikoak** sorkuntza-zentroaren sute-sektore osorako (ezkerreko irudia); eta, bestetik, berriz **temperatura-detekttagailu termikoak** kafe-antzokaren sute-sektore osoan (eskuineko irudia); izan ere, kontzertuetan kea botatzen da askotan emanaldia erakargarriagoa egiteko, eta ke-detekttagailuak jarriko balira, alarma-sistemak jo egingo luke.




Barruko sirena akustikoari dagokionez, hautatu den produktuak soinua ez ezik, argi-keinuak ere egingo ditu (ezkerreko irudia) -erabiltzailearen bat gorra baldin bada, denak jakinarazteko balioko du-. **Kanpoko sirena akustikoa** ere jarri da (eskuineko irudia).




Seinaleztapenari dagokionez, seinale fotolumineszenteak erabili dira eta baita **larrialdi-argiak** ere. Solairuko irteeraren seinalea, irteera-ibilbidearen norabide-seinalea, larrialdietarako eskaileren seinalea, eta kanporako larrialdietaren seinalea, hurrenez hurren.








-1
-3.03 m



-2
-6.08 m





SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOA LEGENDA	
	Su-itziailgailuak: 21A 113B hautsa
	Suteetako ur-hargune hornitua - BIE 25mm
	Alarma-sakagailua
	Larrialdi-ibilbidearen seinaleztapena
	Solairuko irteeraren seinalea
	Larrialdietako irteeraren seinalea
	Baruko sirena akustikoa (argi-seinalearekin)
	Kanpoko sirena akustikoa (argi-seinalearekin)
	Ke-detektagailu optikoa
	Temperatura-detektagailu termikoa
	Alarma-sistemaren zentralita
	Irteera-ibilbidea
	1. sute-sektorea: Kafe-antzokia
	2. sute-sektorea: Sarkuntza-zentroa
	Eskailera babestua
	Arrisku bereziko lokala
	Arrisku txikiko sektorea

e: 1/150



SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOA LEGENDA	
	Su-itziailgailuak: 21A 113B hautsa
	Suteetako ur-hargune hornitua - BIE 25mm
	Alarma-sakagailua
	Larrialdi-ibilbidearen seinaleztapena
	Solairuko irteeraren seinalea
	Larrialdietako irteeraren seinalea
	Baruko sirena akustikoa (argi-seinalearekin)
	Kanpoko sirena akustikoa (argi-seinalearekin)
	Ke-detektagailu optikoa
	Temperatura-detektagailu termikoa
	Alarma-sistemaren zentralita
	Irteera-ibilbidea
	1. sute-sektorea: Kafe-antzokia
	2. sute-sektorea: Sorkuntza-zentroa
	Eskalera babestua
	Arrisku bereziko lokala
	Arrisku txikiko sektorea

e: 1/150



SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOA LEGENDA

	Su-itziailgiak: 21A 113B hautsa
	Suteetako ur-hargune hornitua - BIE 25mm
	Alarma-sakagailua
	Larrialdi-ibilbidearen seinaleztapena
	Solairuko irteeraren seinalea
	Larrialdietako irteeraren seinalea
	Baruko sirena akustikoa (argi-seinalearekin)
	Kanpoko sirena akustikoa (argi-seinalearekin)
	Ke-detektagailu optikoa
	Temperatura-detektagailu termikoa
	Alarma-sistemaren zentralita
	Irteera-ibilbidea
	1. sute-sektorea: Kafe-antzokia
	2. sute-sektorea: Sorkuntza-zentroa
	Esaileria babestua
	Arrisku bereziko lokala
	Arrisku txikiko sektorea

e: 1/150

SS.1 ATALA_Barrutik hedatzea

SUTE-SEKTORETAN BANATZEA

Sekzio honetako 1.1 taulan zehaztutako baldintzen arabera banatu behar dira eraikinak sute-sektoretan. Taula horrek sute-sektoreei ematen dizkien gehieneko azalera bikoiztu egin daitezke baldin eta sua itzaltzeko instalazio automatiko batez babesturik badaude.

Sute-sektore baten azalera neurtzeko, sektore horretan dauden arrisku bereziko lokalak, eskailera eta korridore babesturik, bereizte-atarteak eta sute-sektore gisa banatutako eskailera ez dira sute-sektorearen partetzat hartzen. Sute-sektoreetako elementu banatzaileek suaren aurka duten erresistentziak atal honetako 1.2 taulan ezarritako baldintzak bete behar ditu. Aukera gisa, SS 6 atalean ezarritakoari jarraikiz, suaren eraginpeko denbora baliokidea hartzen denean egitura-elementuentzat, denbora hori berori har daiteke sute-sektoreetako elementu banatzaileek suaren aurka izan beharreko erresistentziarentzat.

Sute-sektoreak elkarrekin edo arrisku bereziko guneak eraikinarekin lotzen dituzten eskailera eta igogailuak aurreko 3. puntuak ezarritakoaren arabera banatuko dira. Igogailuek, sarbide bakoitzean, E 30 atek⁴ edo E₂ 30-C5 atea duen bereizte-atarte bat izango dute, salbu arrisku bereziko edo aparkaleku-erabilerako guneetan, non beti izan beharko baitute aipatutako atarteak.

Elkargune publikoa

- Sute-sektore bakoitzaren azalera eraikia ez da 2.500 m² baino handiagoa izango, ondoko marren segidan jasotako kasuetan izan ezik.
- Jendea eserleku finkoetan eserita egoteko prestatutako guneetan (zinema-aretoak, antzokiak, batzar-aretoak eta abar), eta orobat 2.500 m² baino gehiagoko azalera eraikiko *sute-sektore* bakarra osa dezaketen museo, erlijio-kultuko gune, kiroldegi, eta azoka-eremu eta antzekoetan, baldin eta:
 - a) beste guneetatik EI 120 elementuen bitartez banatuta badaude;
 - b) ebakuazio-bide egokiak badituzte, *solairuko irteeren* bitartez, zeinek *arrisku txikiko sektore* batekin komunikatu behar baitute, *bereizte-atarte* edo *eraikineko irteeren* bidez;
 - c) estaldura-material hauek badituzte: B-s1,d0 hormetan eta sabaietan, eta B_FL-s1 zoruetan;
 - d) estaldura-materialen eta altzari finkoen ondorioz dagoen *su-kargaren dentsitatea* ez bada 200 MJ/m² baino handiagoa eta
 - e) gune horien gainean ez badago bizitzeko eremurik.
- *Kaxa eszenikoek sute-sektore* berezia izan behar dute.

Eraikinaren erabilera **ELKARGUNE PUBLIKOA** da. Bi sute-sektoretan banatuta dago:

1. Sute-sektorea > Kafe-antzokia. Azalera eraikia: 1162,32 m² < 2500m² (max)
2. Sute-sektorea > Sorkuntza-zentroa. Azalera eraikia: 1602,43 m² < 2500m² (max)

1.2 taula
Sute-sektoreak bereizten dituzten hormek, sabaiek eta atek suaren aurka duten erresistentzia⁽¹⁾⁽²⁾

Elementua	Suaren aurkako erresistentzia			
	Lurzoru-mailatik beherako solairuak	Lurzoru-mailatik gorako solairuak ebakuazio-garaira duen eraikinean:		
		h ≤ 15m	15 < h ≤ 28m	h > 28m
Aztertutako sektorea eta eraikinaren gainerako zatiak banatzen dituzten hormak eta sabaiek ⁽³⁾ , <i>aurreikusitako erabilera</i> hau dutelarik: ⁽⁴⁾				
• Merkataritza-erabilera, elkargune publikoa, ospitale-erabilera	EI 120 ⁽⁵⁾	EI 90	EI 120	EI 180
• <i>Aparkaleku-erabilera</i> ⁽⁶⁾	EI 120 ⁽⁷⁾	EI 120	EI 120	EI 120
<i>Sute-sektore</i> batetik bestera igarotzeko atek	EI ₂ t-C5, t izanik dagoen hormari eskatzen zaion <i>suarekiko erresistentzia</i> -denboraren erdia, edota laurdena, baldin eta igarobideak <i>bereizte-atarte</i> bat eta bi atebaditu.			

Beraz, sotoan eta 03, 04 eta 05 solairuetan sute-sektoreak bereizten dituzten hormak eta sabaiek EI 120 erresistentzia dutenak izango dira eta atek berriz, EI₂ 60-C5. Aldiz, 00,01 eta 02 solairuetan EI 90 jarriko da horma eta sabaietan, eta EI₂ 45-C5 ateeetan.

Arrisku bereziko lokalak eta guneak

Eraikinetan integratutako arrisku bereziko lokalak eta guneak hiru mailatan sailkatzen dira: arrisku handikoak, arrisku ertainekoak eta arrisku txikikoak, 2.1 taulan ezarritako irizpideei jarraikiz. Hala sailkatutako lokal eta guneek 2.2 taulan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Berariazko arauen bidez araututako instalazioak eta ekipoak (hala nola transformadoreak, igogailuen makineria, galdarak, erregai-andelak, gas- edo elektrizitate-kontagailuak eta abar) barnean hartzeko diren lokalek, gainera, berariazko arauok ezarritako baldintzak ere bete behar dituzte. Araudi horrek lokalak eta ekipoak aireztatzeko ezartzen dituen kondizioak bateragarri egin behar dira OD honek ezarritako banaketa-kondizioekin. OD honetatik kanpo geratzen dira eraikinetako estalkietan dauden ekipoak, nahiz eta estaldura-elementuekin babesturik egon.

Eraikinaren -2 sotoan kokatzen dira kafe-antzokiaren instalazio guztiak, sorkuntza-zentroaren instalazio batzuk, eta eraikin osoarentzako beste hainbat zerbitzu, hala nola, biltegiak, kamerinoak, garbiketa-gela... Gune horretan, instalazio-gela arrisku bereziko lokal gisa hartuko da, eta 2.1 taulari jarraiki, arrisku handikoa dela jo da; horregatik, eremu hori gainontzekoarekiko bereizten duen hormak EI 180-koak izango dira, 2 x EI₂ 45-C5 motako atek eta egiturak (lauzak) R 180 babesa izango du. Beraz, bereizte-atarte bat jarri beharko da.

Jarraian ditugun eremuak arrisku txikiko lokalizat hartu dira baldintza hauek betetzen dituztelako:

sotoko biltegiak 138 m³ -ko bolumena du (100<138<200); hondakin-biltegiaren azalera 9,73 m²-koa da (5<9.73<15); garbitegiaren azalera 31,83 m²-koa da (20< 31,83 < 100). Ondorioz, hiru espazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: R 90, EI 90 eta EI₂ 45-C5 jarriko dira. Esan bezala, bereizte-atarte bat jarri beharko da instalazio-gelarentzat; horrenbestez, erabaki da arrisku bereziko lokal guztiak -nahiz eta arrisku baxukoei araudiak ez behartu- bereizte-atartearekin bereiziko direla.

Azkenik, 05 solairuan aireztapen mekanikoaren makina-gela kokatzen da, eta hau arrisku txikikoa da 2.1 taularen arabera; beraz, R 90, EI 90 eta EI₂ 45-C5 jarriko dira.

2.1 taula
Eraikinetan integratutako arrisku bereziko lokalen eta guneen sailkapena

Eraikinarentzat edo establezimenduentzat aurreikusitako erabilera Lokalaren edo gunearen erabilera	Lokalaren edo gunearen tamaina S = azalera eraikia V = bolumen eraikia		
	Arrisku txikia	Arrisku ertaina	Arrisku handia
Edozein eraikin edo establezimendutan			
• Mantentze-lanetarako tailerrak, erregai-elementuentzako biltegiak (adibidez, altzariak, mihiseria, garbiketa eta abar), dokumentu-artxibategiak, liburu-gordailuak eta abar	100 < V ≤ 200 m ³	200 < V ≤ 400 m ³	V > 400 m ³
• Hondakin-biltegiak	5 < S ≤ 15 m ²	15 < S ≤ 30 m ²	S > 30 m ²
• Familia bakarreko etxebizitza bateko edo 100 m ² gehiagoko azalera (S) ez duen etxebizitza bateko ibilgailuentzako aparkalekua	Kasu guztietan		
• Instalaturako potentziaren (P) araberako sukaldeak ⁽¹⁾⁽²⁾	20 < P ≤ 30 kW	30 < P ≤ 50 kW	P > 50 kW
• Garbitegiak. Langileen aldagelak. Jantzigelak ⁽³⁾	20 < S ≤ 100 m ²	100 < S ≤ 200 m ²	S > 200 m ²
• Potentzia erabilgarri izendatua (P) duten galdara-gelak	70 < P ≤ 200 kW	200 < P ≤ 600 kW	P > 600 kW
• Klimatizazio-instalazioetako makina-gelak (RITE-ren arabera —eraikinetako instalazio termikoen araudia—, uztailaren 20ko 1027/2007 EDaren bidez onartua, BOE 2007/08/29)	Kasu guztietan		
• Hozte-makinerien gelak: – hozgarri amoniakoa – hozgarri halogenatua	P ≤ 400 kW S ≤ 3 m ²	Edozein kasutan P > 400 kW S > 3 m ²	
• Berogailuarentzako erregai solidoen biltegiak	Kasu guztietan		
• Elektrizitate-kontagailuen eta banaketa-koadro orokorren lokalak	Kasu guztietan		
• Transformazio-zentroak – isolatzaile dielektriko lehorra edo 300 °C baino sugar-puntu handiagoko likidoa duten gailuak – Sugar-puntu 300 °C edo gutxiagokoa den isolatzaile dielektrikoa duten gailuak, potentzia instalatu (P) hauekin: – guztira – transformadore bakoitzean	P ≤ 2.520 kVA P ≤ 630 kVA	2.520 < P ≤ 4.000 kVA 630 < P ≤ 1.000 kVA	P > 4.000 kVA P > 1.000 kVA
• Igogailuen makineria-gela	Kasu guztietan		

2.2 taula
Eraikinetan integratutako arrisku bereziko guneen baldintzak⁽¹⁾

Ezaugarria	Arrisku txikia	Arrisku ertaina	Arrisku handia
Sostengu-egiturak suaren aurka duen erresistentzia ⁽²⁾	R90	R120	R180
Gunea eraikinaren gainerako parteetatik banatzen duten horma eta sabaiek ⁽³⁾ suaren aurka duten erresistentzia ⁽²⁾⁽⁴⁾	EI 90	EI 120	EI 180
Bereizte-atarteak gunearen eta eraikinaren gainerako parteen arteko komunikazio bakoitzean	–	Bai	Bai
Eraikinaren gainerako parteekin komunikatzeko ateak	EI ₂ 45-C5	2 × EI ₂ 30-C5	2 × EI ₂ 45-C5
Lokalaren irteeretako baterainoko gehienezko ibilbidea ⁽⁵⁾	≤ 25m ⁽⁶⁾	≤ 25m ⁽⁶⁾	≤ 25m ⁽⁶⁾

Eremu ezkutukak. Instalazioen sute-banaketak elementuak zeharkatzea

Erabil daitezkeen eremuen suteen kontrako banaketak jarraipena izan behar du eremu ezkutuetan, hala nola patio txikietan, ganberetan, sabai aizunetan, zoru goratuetan eta abarretan, salbu eremu ezkutukak beste eremu haieetatik banatzean suaren aurkako erresistentzia berdina badute, gutxienez. Mantentze-lanetarako erregistroetan, suaren aurkako erresistentzia hori erdira murriztu daiteke.

Garapen bertikala hiru solairukoa eta 10 m-koa izan dezakete ganbera ez-estankoei, gehienez, suarekiko erreakzio mota B-s3,d2, BL-s3,d2 edo hobe ez duten elementuak badaude haietan.

Sute-banaketak elementuek neurri berekoa izan behar dute suaren aurkako erresistentzia-instalazioen elementuek zeharkatzen dituzten puntuetan —hots, kable, hodi, eroanbide, aireztatze-hodi eta abarrek zeharkatzen dituzten puntuetan—, salbu 50 cm² baino gutxiagoko pasatze-sekzioa duten sarpenak direnean. Horretarako, aukera hauetako bat har daiteke:

- Elementuren bat izatea sutarik bada pasatze-sekzioa automatikoki itxiko duena eta puntu horretan zeharkatutako elementuak suaren aurka duen erresistentzia berdina (gutxienez) bermatuko duena; adibidez, EI t (i↔o) suaren kontrako ataka automatiko bat, t delarik banatzeko elementu zeharkatuari eskatzen zaion suarekiko erresistentziaren denbora, edota itxeko gailu intumezsente bat.
- Gutxienez elementu zeharkatuaren erresistentzia berdina duten alderik aldeko elementuak, adibidez, EI t (i↔o) aireztatze-hodiak, t delarik banatzeko elementu zeharkatuari eskatzen zaion suarekiko erresistentzia-denbora.

Eraikuntza-, dekorazio- eta altzari-elementuen suarekiko erreakzioa

Eraikuntza-elementuek 4.1 taulan ezarritako suarekiko erreakzioari dagozkion baldintzak bete behar dituzte. Instalazio elektrikoaren osagaien (kable, hodi, erretilu, konexio-bloke, armairuak eta abarren) suarekiko erreakzioari dagozkion baldintzak haien berariazko araudian arautzen dira.

4.1 taula
Eraikuntza-elementuen suarekiko erreakzio motak

Elementuaren kokalekua	Estaldurak ⁽¹⁾	
	Sabai eta hormenak ⁽²⁾⁽³⁾	Zoruenak ⁽²⁾
Gune erabilgarriak ⁽⁴⁾	C-s2,d0	E _{FL}
Korridore eta eskailera babestuak	B-s1,d0	C _{FL} -s1
Aparkalekuak eta arrisku bereziko esparruak ⁽⁵⁾	B-s1,d0	B _{FL} -s1
Eremu ezkutu ez-estankoak, hala nola patio txikiak, sabai aizunak eta zoru goratuak (etxebizitzan barruan daudenak izan ezik), edota estankokoak izan eta sute bat pitzaraz edo hedaraz dezaketen instalazioak dituztenak	B-s3,d0	B _{FL} -s2 ⁽⁶⁾

Elkargune publikorako eraikin eta establezimenduetan, dekorazio- eta altzari-elementuek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Zinema-areto, antzoki, auditorio, ekitaldi-areto eta abarretan, proiektuan jasotako butaka eta eserleku finko tapizatuek:
Arau hauen arabera gairatu behar dute saiakuntza:

- UNE-EN 1021-1:2006 «Altzari tapizatuen sukoitasunaren balioespena - 1. parte: sutze-iturriak: zigarreta irazekia».
 - UNE-EN 1021-2:2006 «Altzari tapizatuen sukoitasunaren balioespena - 2. parte: sutze-iturriak: pospolo baten baliokidea den sugarra».
- b) Ehuneko elementu esekiek, hala nola antzokietako oihal, gortina, errezel eta abarrek:
1. mota, UNE-EN 13773: 2003 arauari jarraikiz: «Ehunak eta ehunikiak. Suarekin duten portaera. Gortinak eta errezelak. Saiikapen-eskema».

SS.2 ATALA_Kanpotik hedatzea

Mehelinak eta fatxadak

Beste eraikin batetik bereizitako elementu bertikalek, gutxienez, EI 120 izan behar dute.


Fatxadan barrena sutea horizontalki kanpotik hedatzeko arriskua mugatzeko —bai bi sute-sektoreren artean, bai arrisku berezi handiko gune baten eta beste gune batzuen artean, bai beste gune batzuetatik eskailera babestu edo korridore babestu baterantz—, gutxienez jarraian adierazten den d distantzia batek bereizi behar ditu EI 60 baino gutxiago diren haien fatxadetako guneak, proiektzio horizontalean, fatxada horien kanpoko planoek eratutako angeluaren arabera (ikus 1.1 irudia).

Angulu horren bitarteko balioentzat, interpolazio lineal bidez lor daiteke d distantzia.

Elkarren ondoan dauden eraikin kasuan, EI 60 baino gutxiago diren eraikinaren fatxadako guneek bi fatxadek eratutako angeluaren erdikarirainoko d distantziaren % 50 beteko dute.

α	0° ⁽¹⁾	45°	60°	90°	135°	180°
d (m)	3,00	2,75	2,50	2,00	1,25	0,50

1.6 irudia
180° erazten duten fatxadak



Beraz, beste eraikin batetik bereizitako elementu bertikalek EI 120 izango dira. Elkarren ondoan dauden eraikin kasuan, ez dago irekidurarik 1.6 irudiak zehazten duen 50cm ko distantzia horretan. Proiektuan, alderik okerrean 75cm-ra dago, beraz betetzen da. Dena den, EI 60 jarri da.

Fatxadatik sutea bertikalki hedatzeko arriskua mugatzeko —bai bi sute-sektoreren artean, bai arrisku berezi handiko gune baten eta eraikineko goragoko beste gune batzuen artean, bai beste gune batzuetatik eskailera babestu edo korridore babestu baterantz—, fatxada horrek EI 60 bederen izan behar du, gutxienez 1 m-ko garaierako tarte batean, fatxadaren planoaren gainean neurtuta (ikus 1.7 irudia). Sugarrak pasatzen ez uzteko egokiak diren elementu irtenik baldin bada, tarte horren garaiera murriztu daiteke, aipatutako irtenunearen neurrian (ikus 1.8 irudia).

Fatxaden kanpoaldeko akaberaren gainazalaren edo fatxada horien ganbera aireztatuen barnealdeko gainazalaren % 10 baino gehiago betetzen duten materialen suarekiko erreakzio mota B-s3,d2 izango da, gutxienez 3,5 m-ko garaieraraino, jendea beheko abiapuntura kanpoaldeko lurzoru-mailatik edo estalki batetik sar daitezkeen fatxadetan; eta, fatxadaren garaiera 18 m-tik gorakoa den kasuetan fatxadaren garaiera guztia hartuko du, haren abiapuntua edonon dagoela ere.

Ez dago bertikalki hedatzeko egoerarik.

Estalkiak

Estalkian barrena sutea kanpotik hedatzeko arriskua mugatzeko, izan elkarren ondoan dauden bi eraikinen artean, izan eraikin berean, REI 60 suaren aurkako erresistentzia izango du eraikinak, eta, orobat, sute-sektore baten edo arrisku berezi handiko lokal baten elementu banatzaile ororen estalkiarekiko elkargunearen gainean, 1,00 m zabaleko tartea. Aurreko baldintza horren ordean, beste bat aplika daiteke: mehelina edo elementu banatzailea 0,60 m luzatzea estalkiaren akaberaren gainetik.

Sute-sektore edo eraikin desberdinetakoak diren estalki eta fatxada baten arteko elkargunean, suaren aurkako erresistentzia gutxienez EI 60 ez duen fatxadako edozein gune estalkiaren gainetik h garaiera jakin batera egon behar du. Garaiera hori kalkulatzeko, kontuan hartu behar da suarekiko erresistentzia-balio hori ez duen estalkiaren edozein gune, proiektio horizontalean, fatxadatik dagoen d distantzia. Hona d distantzia horien arabera h garaierak:

Eraikin beraren edo beste baten fatxadako edozein guneren proiektio bertikalarekiko 5 m baino distantzia txikiagoa dauden estalduraren edo estalki-guneetako kanpoko akaberaren % 10 baino gehiago hartzen duten materialek, suarekiko erresistentzia gutxienez EI 60 ez badute, BROOF (t1) suaren aurkako erresistentzia motakoak izan behar dute, 1 m metro gainditzen ez duen irtenunea duten hegalekiko gainera alde barne, baita argizuloak, sabai-leihoak eta argiztatze edo aireztatzeko beste edozein elementu ere.

d(m)	≥ 2,50	2,0	1,75	1,50	1,25	1,00	0,75	0,50	0
h(m)	0	1,00	1,50	2,00	2,50	3,00	3,50	4,00	5,00

EI 60 jarriko da estalkien bitarteko hedapena ekiditeko.

SS.3 ATALA_Erabiltzaileak ebakuatzea

Ebakuazio-elementuen bateragarritasuna

Edozein azaleratako merkataritza-erabilerako edo elkargune publikorako erabileraren duten establezimenduek, eta 1.500 m² baino gehiagoko azalera eraikiko irakaskuntza-, ospitale-, bizitegi-erabilerako edo administrazio-erabilerako establezimenduek, haiena ez den aurreikusitako erabileraren nagusia duen eraikin batean integratuak badaude, baldintza hauek bete behar dituzte:

Ez da proiektuaren kasua.

Okupazioaren kalkulua

Okupazioa kalkulatzeko, 2.1 taulan agertzen diren okupazio-dentsitatearen balioak hartu behar dira, gune bakoitzaren azalera erabilgarriaren arabera kalkulatu direnak, salbu okupazio handiagoko aurreikus daitekeenean edo nahitaez bete beharreko legeren batek hala aginduta okupazio txikiagoa eska daitekeenean; hala gerta daiteke, esate baterako, hotelen, ikastetxeen, ospitaleen eta abarren kasuan. Taulan agertzen ez diren esparruei edo guneei, erabileraren parekagarrienei dagozkien balioak aplikatu behar zaizkie.

Okupazioa zehazterakoan, kontuan hartu behar da eraikin bateko guneak, jardueraren erregimenaren eta aurreikusitako erabileraren arabera, aldi berean ala aldizka erabiltzekoak diren.

Jarraian dagoen taulan zehazten da okupazioa zein den solairu bakoitzean, eta 2.1 taulako zein okupazio-dentsitate hartu diren kalkulua egiteko.

OKUPAZIOAREN KALKULUA_Elkgarune publikoa

1. SUTE-SEKTOREA			
(-1) SOTOA_KAFE-ANTZOKIA	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Jendearentzako guneak diskoteketan	0,5	124,6	249,2
Taberna, jatetxe, kafetegia eta abarretako zerbitzuguneak	10	102,11	10,211
Guztira		226,71	259,411
(-2) SOTOA_KAFE-ANTZOKIA	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Ikusleak zutik egoteko guneak	0,25	63,53	254,12
Taberna, jatetxe, kafetegia eta abarretako zerbitzuguneak	10	49,84	4,984
Guztira		113,37	259,104
1. sute-sektorea GUZTIRA			518,515
2. SUTE-SEKTOREA			
00 SOLAIRUA_SARRERA ETA HARRERA	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Atarte orokorrak, sotoetan, beheko solairuetan eta tarteko solairuetan jendeak erabiltzeko guneak	2	39,72	19,86
Guztira			19,86
01 SOLAIRUA_ADMINISTRAZIOA (Administrazio-erabilerak)	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Bulegoen solairuak edo guneak	10	28,37	2,837
Atarte orokorrak eta jendeak erabiltzeko guneak	2	19,06	9,53
Guztira			12,367
02 SOLAIRUA_LIBURUTEGIA ETA EGONGELA	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Itxarongelak, liburutegietako irakurgelak, museoetako jendeak erabiltzeko gunea, arte-galeriak, azokak eta erakusketak, eta abar	2	188	94
Taberna, jatetxe, kafetegia eta abarretako zerbitzuguneak	10	12,06	1,206
Guztira			95,206
03 SOLAIRUA_TAILERRAK	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Itxarongelak, liburutegietako irakurgelak, museoetako jendeak erabiltzeko gunea, arte-galeriak, azokak eta erakusketak, eta abar	2	177,5	88,75
Taberna, jatetxe, kafetegia eta abarretako zerbitzuguneak	10	12,06	1,206
Guztira			89,956
04 SOLAIRUA_IKASGELA	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Erabiltzaileak eserita egoteko guneak: proiektuan zehaztutako eserlekuak dituztenak	1 perts./eserleku		65
Taberna, jatetxe, kafetegia eta abarretako zerbitzuguneak	10	12,06	1,206
Guztira			66,206
05 SOLAIRUA_TERRAZA	m2/pertsonako	m2	pertsona-okupazioa
Itxarongelak, liburutegietako irakurgelak, museoetako jendeak erabiltzeko gunea, arte-galeriak, azokak eta erakusketak, eta abar	2	177,5	88,75
Taberna, jatetxe, kafetegia eta abarretako zerbitzuguneak	10	12,06	1,206
Guztira			89,956
2. sute-sektorea GUZTIRA			373,551

Irteera-kopurua eta ebakuazio-ibilbideen luzera

3.1 taulan adierazten da kasu bakoitzean gutxienez zenbat irteera egon behar duten eta haietaraino heltzeko *ebakuazio-ibilbideek* zer luzera izan behar duten.

3.1 taulak zehazten duen moduan, eskailera bakarra izateko honako baldintza hauek bete behar dira: solairuko ezin da 100 pertsona baino gehiago eduki; solairuko irteerara arte, ezin da 25m baino gehiago eduki; eta, ezin da 28 metroko baino garaiera gehiago eduki.

Proiektuan, baldintza horiek guztiak betetzen dituen sute-sektorea da sorkuntza-zentroa. Gainera, "eskaileraren babesa" atalak zehazten du 14 < 28m artean dagoenez, babestua izan behar duela.

Kafe-antzokian aldiz, bi ebakuazio eskailera ditugu, eta 2,8m-ko igoera baino handiagoa dagoenez, nahitaez babestuak izan behar dute biak. Ondorioz, 3.1 taulak zehazten du irteera-ibilbideak ezin duela 50 m baino luzeagoa izan. Eta proiektuan betetzen da (ikus planoak).

3.1 taula
Solairuko irteeren kopurua eta ebakuazio-ibilbideen luzera⁽¹⁾

Irteera-kopurua	Baldintzak
Solairuko irteera edo lokaleko irteera bakarria duten solairuak eta lokalak, hurrenez hurren	<p>Ez da onartzen ospitale-erabileran, ospitalizazio-solairuetan edo tratamendu intentsiboko solairuetan, ezta 90 m² baino azalera handiagoako paziente ospitaleratuentzako geletan edo unitateetan ere.</p> <p>Ezin da 100 pertsonatik gorako okupazioa izan, honako kasu hauetan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza-erakin bateko irteera denean, 500 pertsona eraikin osoan; • solairuko irteera batera iristeko, goranzko norabidean 2 m baino garaiera handiagoa pasatu behar den guneetan, 50 pertsona; • haur-eskoletan, eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, 50 ikasle. <p>Solairuko irteera bateraino iristeko, ebakuazio-ibilbideak ezin dira 25 m baino luzeagoak izan, honako kasu hauetan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • aparkaleku-erabileran, 35 m; • Kanpoaldeko toki seguruetara irteera zuzena duten eta gehienez 25 pertsonako okupazioa duten solairuetan (aparkaleku-erabilerakoak badira ere), edota sute-arriskua hutsala den estali gabeko toki batean (adibidez, eraikineko estalki batean, terraza batean, eta abar), 50 m. <p>Solairuko beheeranzko ebakuazio-garaiera ezin da 28 m baino handiagoa izan, bizitegi-erabileran publikoan izan ezik, non, gehienez, eraikineko irteeraren gaineko bigarren solairua izango baita⁽²⁾, edo, goranzko ebakuazioa denean, 10 m.</p>
Solairuko irteera edo lokaleko irteera bat baino gehiago dituzten solairuak eta lokalak, hurrenez hurren ⁽³⁾	<p>Solairuko irteeretako batera iristeko, ebakuazio-ibilbideak ezin dira 50 m baino luzeagoak izan, honako kasu hauetan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • erabiltzaileek lo egingo dutela aurreikusten den guneetan, edo ospitale-erabilerako ospitalizazio-solairuetan edo tratamendu intentsiboko solairuetan, eta haur-eskolako edo lehen hezkuntzako solairuetan, 35 m; • Sutea pizteko arriskua hutsala den estali gabeko tokietan (adibidez, eraikineko estalki batean, terraza batean eta abar), 75 m. <p>Ebakuazio-ibilbideen luzera —alegia, hasten direnetik gutxienez bi ordezko ibilbide dauden guneren batera arteko luzera—, ezin da 15 m baino handiagoa izan ospitale-erabilerako ospitalizazio-solairuetan edo tratamendu intentsiboko solairuetan, eta ezin da gehienezko luzera onargarria baino handiagoa izan irteera bakarria egonez gero, gainerako kasu guztietan.</p> <p>Solairuko beheeranzko ebakuazio-garaieraren ondorioz ezinbestekoa baldin bada solairuko irteera bat baino gehiago egotea edo 50 pertsona baino gehiagok 2 m baino goranzko ebakuazio-garaiera handiagoa pasatu behar badute, gutxienez bi solairuko irteera izan behar dute bi eskailera desberdinetara ematen dutenak.</p>

Ebakuazio-bideen neurriak

Erabiltzaileak esleitzeko irizpideak:

Gune batek, esparru batek, solairu batek edo eraikin batek irteera bat baino gehiago izan behar duen kasuetan (irteeratutako jotzen dira nahitaez pasatu beharreko igaroguneak ere), erabiltzaileak nola banatu behar diren kalkulatzeko, irteeretako bat erabili ezin dela pentsatuz jokatu da, hipotesirik kaltegarriena aintzat hartuz.

Bai eskaileretako ebakuazio-gaitasuna bai eskaileren artean erabiltzaileak nola banatu behar diren kalkulatzeko, bat baino gehiago daudenean, ez da beharrezkoa eskailera babestuetako bat, bereziki babestuetako bat edo sute-sektore gisa banatutakoren bat ezertarako erabili ezin dela jotzea. Aitzitik, **beharrezkoa denean eskailera bat baino gehiago izatea, eta eskaileroi babesik gabek eta banatu gabek baldin badira, haietariko bat ezertarako erabili ezin dela joko da, hipotesirik kaltegarriena aintzat hartuz.**

Eskailera baten irteera-solairuan, hura erabiltzen duten pertsonen joan-etorria dagokien solairuko irteerari gehitu behar zaio, haren zabalera zehazteko xedearekin. Joan-etorri hori kalkulatzeko, edo 160 A pertsona dela joko da (A delarik eskaileretako irteeraren zabalera, metrotan), edo, pertsona-kopurua 160 A baino txikiagoa baldin bada, solairu guztietan eskailera erabiltzen duen pertsona-kopurutan.

Kalkulua

4.1 taulan adierazten denari jarraikiz kalkulatu behar dira ebakuazio-elementuen neurriak.

4.1 taula
Ebakuazio-elementuen neurriak

Elementu-mota	Neurria
Ateak eta pasaguneak	$A \geq P/200^{(1)} \geq 0,80 \text{ m}^{(2)}$ Ate-orri ororen zabalera ezin da izan 0,60 m baino txikiagoa, ez eta 1,23 m baino handiagoa ere.
Korridoreak eta arrapalak	$A \geq P/200 \geq 1,00 \text{ m}^{(3)(4)(5)}$
Publikoarentzako aretoetako, hala nola zinemetako, antzokietako, auditorioetako eta abarretako eserleku finkoen lerro arteko pasaguneak ⁽⁶⁾	Korridorera soilik alboetako batetik irten daitekeen lerroetan, 7 eserleku dituztenean, $A \geq 30 \text{ cm}$, eta eserleku gehigarri bakoitzagatik 2,5 cm gehiago, gehienez 12 eserleku onartzen direlarik. Korridorera bi alboetatik irten daitekeen lerroetan, gehienez 14 eserleku lerroetan, $A \geq 30 \text{ cm}$, eta eserleku gehigarri bakoitzagatik 1,25 cm gehiago. 30 eserleku edo gehiagorentzako: $A \geq 50 \text{ cm}^{(7)}$ 25 lerrotik behin, gehienez, lerro arteko pasagune bat egongo da, gutxienez 1,20 m zabalekoa.
Babestu gabeko eskailera ⁽⁸⁾ • beheeranzko ebakuazioa egiteko • goranzko ebakuazioa egiteko	$A \geq P/160^{(9)}$ $A \geq P/(160-10h)^{(9)}$
Eskailera babestuak Korridore babestuak	$E \leq 3S + 160AS^{(9)}$ $P \leq 3S + 200A^{(9)}$
Estali gabeko guneetan: • Pasaguneak, korridoreak eta arrapalak • Eskailera	$A \geq P/600^{(10)}$ $A \geq P/480^{(10)}$

A = Elementuaren zabalera, [m]

AS = Eskailera babestuaren zabalera eraikineko irteera dagoen solairura irteteko gunean, [m]

h = Goranzko ebakuazio-garaiera, [m]

P = Zabalera neurtu den puntutik pasatuko dela aurreikusten den pertsona-kopurua, guztira.

E = Batura hau: aztertutako solairuan eskailerari esleitutako erabiltzaileak, gehi eraikineko irteerako solairurainoko haren azpiko eta gaineko bi solairuetako erabiltzaileak (beheranzko edo goranzko ebakuaziorako eskailera denean, hurrenez hurren). Esleipen horretarako, aski da 4.1 puntuan adierazitako solairu-irteeren blokeoaren hipotesia aplikatzea solairuetako batean, hipotesirik txarrenean.

S = Esparruaren azalera erabilgarria, edo, P pertsonak zein solairutatik datozen, haietako eskailera babestuen, barnean harturik eskailera-atalen, eskailera-buruen eta tarteko eskailera-buruen edo korridore babestuaren azalera.

Ateak eta pasabideak zehaztea:

4.1 taularen arabera, ebakuazio-ate eta pasaguneen zabalera 3,36m-koa izan behar du gutxienez $A > P/200$ adierazpenaren arabera 00 solairuko harreran (kalkulatzerakoan kontuan hartu dira bai sorkuntza-zentrotik datozenak, eta, baita kafe-antzikoko zati handi bat ere).

Proiektuan, eraikinetik irteteko solairuan, hau da, behe oinean, ate bakoitzaren zabalera 1,8 m-koa da, eta hiru ate daudenez, 5,54m-ko pasabidea legoke, beraz, erraz betetzen da. Gero, solairu bakoitzean eskatzen den atearen zabalera espresio horri jarriki 0,5m-koa den arren, eta araudiak eskatzen duen gutxienez 0,8m den arren, proiektuaren diseinuarengatik 1,8m ko zabalera jarri dira, beraz, soberan gaintzen da. Gainera, solairu guztietako atek befi kakoekin lotuta egongo dira, eta alarma-sistemak joz gero, automatikoki itxiko liriteke; gero eskuz ireki beharko liriteke.

Bestalde, kafe-antzikotik beste irteera-bide bat dago zuzenean kalera ematen duena. Pasabide horren kalkulua egingo da: $A > P/200 \rightarrow 1,3\text{m}$ -ko zabalera izan behar du atek.

Eskaileren zabalera zehaztea:

4.1 taularen arabera, eskailera babestuaren azalera zehazteko $E \leq 3S + 160As$ espresioa bete behar da. Sorkuntza-zentroko eskaileren kalkulua egin da lehenik. Horretarako, hartu da E-ren baliorik handiena, hau da, pertsona kopuru handiena izango duena, 00 solairua aztertuta lortuko dugu. Beraz, hori kalkulatu da 1,2m-ko eskailera-zabalerarekin: $E \leq 3S + 160As \rightarrow 353 < 3 \cdot 102,6 + 160 \cdot 1,2 \rightarrow 353 < 500$ betetzen da.

Beraz, eskaileraren zabalera 1,2m izango da 00 solairuan eta b 15cm. Gainera, 01, eta 02 solairuan ere neurri berberak mantenduko dira proiektuaren diseinuarekin bat datozeelako. Hortik gorako solairuetan eskaileraren eta barandaren zabalera estutzen joango da. Hain zuzen, 02-03 solairura bitartean 1,1 m eta 10cm izango da eskailera, baina badaezpada baieztatu egingo dugu: $244 < 3*65,7 + 160*1,1 \rightarrow 244 < 373,1$ betetzen da.

03-04-05 solairuetan zabalera 1m izango da eta baranda 5cm: $155 < 3*43,8 + 160*1 \rightarrow 155 < 291$ betetzen da.

Kafe antzokian berriz hiru irteera ditugu: bi eskailera babestu eta hirugarrena patioetik zuzenean kalera atera daitekeen bidea. Ondorioz, hipotesirik kaltegarriena aintzat hartzeko hirugarren hori izango da ez-erabilgarritzat joko dena (beste biak babestuak direlako)

Hartutako bi eskaileren zabalera berdin mantentzen da ibilbide osoan; ondorioz, taula honen bitartez zehaztuko ditugu zabalera zein diren. $1,20 \text{ m zabalera} \times \text{hautatu dira; bien batura } 274 \times 2 = 548 \text{ pertsonakoa da, eta kafe-antzokiaren okupazioa } 518 \text{ pertsonakoa. } 518 < 548$ betetzen da.

4.2 taula
Zabaleraren arabera, eskaileren ebakutzeko gaitasuna

Eskaileraren zabalera, m-tan	Babestu gabeko eskailera		Eskailera babestua (beheranzko edo goranzko ebakuzioa) ⁽¹⁾					hortik gorako solairu bakoitzeko
	Goranzko ebakuzioa ⁽²⁾	Beheranzko ebakuzioa	Solairu-kopurua					
			2	4	6	8	10	
1,00	132	160	224	288	352	416	480	+32
1,10	145	176	248	320	392	464	536	+36
1,20	158	192	274	356	438	520	602	+41
1,30	171	208	302	396	490	584	678	+47
1,40	184	224	328	432	536	640	744	+52

Ebakuzio-ibilbideetan dauden ateak

Solairuko edo eraikineko irteera gisa aurreikusitako ateak eta 50 pertsona baino gehiago ebakutzeko aurreikusitako ateak tolesgarriak izango dira, biraketa bertikaleko ardatza dutenak, eta haien itxeko sistemak, ebakutzeko guneetan jardueraren bat den bitartean, ez du funtzionatuko edo ebakuzioa datorren aldetik aise eta azkar irekitzeko moduko gailua izan beharko du, giltza erabili beharrik gabe eta mekanismo bat baino gehiago erabili behar izan gabe. Ate automatikoen kasuan, aurreko baldintza horiek ez dira aplikatuko.

Arestiko eskakizun funtzional hori betetzen dute, UNE-EN 179:2008 arauari jarraituz, kirten edo sakagailu bidezko irekigailuek, baldin eta ebakutu beharreko gunea erabiltzen duten pertsona gehienek badakite ateak nola funtzionatzen duen; eta, bestelako kasuan, ateak ebakuzioaren noranzkoan irekitzen badira, hurrengo 3. puntuari jarraituz, bultzatzeko edo lerratzeke barra horizontala dutenek, UNE EN 1125:2008 arauari jarraituz.

Ebakuzioaren noranzkoan irekiko dira irteerako ate guztiak, honako kasu hauetan:

- etxebizitza-erabilerako eraikinetan, 200 pertsonak baino gehiagok pasatu behar dutela aurreikusten denean, edo, gainerako kasuetan, 100 pertsonak baino gehiagok erabiliko dutenean; edota
 - dagoen esparruko edo tokiko 50 erabiltzailek baino gehiagok erabiliko dutela aurreikusten denean.
- a) eta b) puntuetan adierazten den pertsona kopurua kalkulatzeko, atal honen 4.1 zatian zehaztutako erabiltzaileak esleitzeko irizpideak hartuko dira kontuan.

Ebakuzio-ibilbideetan dauden ate guztiak kanporantz eta eskuekin irekitzen dira proiektuan.

Ebakuzio-bideen seinaleztapena

UNE 23034:1988 arauan zehaztutako ebakuzio-seinaleak erabiliko dira, irizpide hauen arabera:

a) Lokaleko, solairuko edo eraikineko irteeretan «IRTEERA» jartzen duen seinalea egongo da, salbu etxebizitza-erabilerako eraikinetan eta, beste erabilerak bateko lokalen irteeretan, baldin eta 50 m² baino azalera txikiagoko lokalak badira eta irteera barnealdeko edozein puntutatik erraz ikus badaiteke, eta erabiltzaileek eraikina ezagutzen badute.

b) Larraldietan soilik erabiliko diren irteera guztietan «Larraldietako irteera» seinalea jarri behar da.

c) Ibilbideen norabidea adierazten duten seinaleak jarri behar dira, irteerak edo haien seinaleak zuzenean ezin ikus daitezkeen ebakuzio-jatorri guztietatik ikus daitezkeenak eta, bereziki, albotik korridore batera ematen duen 100 pertsona baino gehiagoko okupazioko lokalen irteera ororen parean.

d) Okerreko bidea hartzeko arriskua dagoen ebakuzio-ibilbideetako puntuetan ere jarriko dira arestian aipatutako seinaleak, bide zuzena zein den argi eta garbi adieraziz. Hala egingo da, adibidez, korridoretako bidegurutzeko edo adarkadurretan, eta, halaber, ibilbideak eraikineko irteerako solairutik beheragoko solairuetara jarraitzen duten eskaileretan, eta abar.

e) Ibilbide horietan, irteerakoak ez diren eta ebakuzioaren bide okerra hartzea eragin dezaketen ateen ondoan, «Ez dago irteerarik» seinalea jarri behar da, erraz ikus daitekeen tokian eta inola ere ez ateen orrien gainean.

f) Irteera bakoitzari esleitu nahi zaion erabiltzaile-kopuruaren arabera jarriko dira seinaleak, atal honen 4. kapituluaren ezarritakoari jarraituz.

Seinaleak beti ikusi behar dira, baita argiztapen arruntaren hornidurak huts eginez gero ere. Fotolumineszenteak direnean, UNE 23035-1:2003, UNE 23035-2:2003 eta UNE 23035-4:2003 arauak ezarritakoa bete behar dute, eta haien mantentze-lanak UNE 23035-3:2003 arauaren ezarritakoari jarraituz egingo dira.

Kafe-antzokian, eskailera bat dago soilik larraldietarako; beraz, hau beteko da: "Larraldietan soilik erabiliko diren irteera guztietan «Larraldietako irteera» seinalea jarri behar da."

Sute-keak kontrolatzea

Jarraian adierazten diren kasuetan, sute-keak kontrolatzeko sistema bat instalatu behar da, erabiltzaileek eraikina hustu bitartean kontrol hori bermatzeko, eta, hala, ebakuzioa segurtasunez egiteko:

- Aparkaleku irekiak ez diren aparkaleku-erabilerako guneetan;
- 1.000 pertsona baino gehiagorentzako merkataritza-erabilerako edo elkargune publikorako establezimenduetan;
- Atarietan, sute-sektore bera osatzen duten gune eta solairu guztietan 500 pertsona baino gehiagorentzako okupazioa dutenean, edota 500 pertsona baino gehiago ebakutzeko erabiliko dela aurreikusten denean.

Arau hauen arabera egin daitezke sistemaren diseinua, kalkulua, instalazioa eta mantentze-lanak: UNE 23584:2008, UNE 23585:2004 (zeinetan ez baita aintzat hartu behar «0.3 Aplikazioak» ataleko azken paragrafoan zehazten dena; alegia, ebakuzio mekanikoko edo behartutako sistemak kanpo uztea) eta UNE-EN 12101-6:2006.

Aparkaleku-erabilerako guneetan, HO-3 oinarriko dokumentuan ezarritakoari jarraituz, aireztatze-sistemak jar daitezke, zeinek, mekanikoak direnean, han ezarritako baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko baitituzte:

- Sistemak gai izan behar du 150 l/aparkaleku s-ko aire-emia eratzeko, 120 l/aparkaleku s-ko gehienezko ekarpenarekin, eta sutea piztuz gero, automatikoki aktibatuta behar du, detekzio-instalazio baten bidez. Garaiera

4 m baino gehiago duten solairuetan, E300 60 motako konporta automatikoen bidez itxi behar dute lurretik gertuen dauden airea erazteko irekidurek, baldin eta sistemak halako konportak baditu.

b) Haizagailuek, baita karga-galerak orekatzeko edota fluxua doitzeko bulkada bidezkoek ere, F300 60 sailkapena izan behar dute.

c) Sute-sektore bakarretik igarotzen diren hodiekin E300 60 sailkapena izan behar dute. Sute-sektore- tango elementu banatzaileak zeharkatzen dituztenek EI 60 sailkapena izan behar dute.

SS.4 ATALA_Suteetatik babesteko instalazioak

Planoetan adierazi dira babes-elementu guztiak, 1.1 taulak zehaztutakoaren arabera. Suteetatik babesteko instalazioak jartzea

Eraikinek 1.1 taulan zehaztutako suteetatik babesteko ekipoak eta instalazioak izan behar dituzte. Instalazio horien diseinuak, gauzatzeko-lanak, martxan jartzeak eta mantentze-lanek, eta, orobat, haien materialek, osagaiak eta ekipoak bete beharrekoa dute «Suteetatik Babesteko Instalazioen Araudia»n, haren xedapen osagarrietan eta aplikatu dakiokkeen berariazko beste edozein arauditan ezarri- takoa. Instalazioak martxan jartzeko, ezinbestekoa da aipatutako araudiaren 18. artikulua zehaztutako enpresa instalatzailearen ziurtagiria aurkeztea autonomia-erkidegoko organo eskuduneari.

Bai arrisku bereziko lokalek, bai eraikinaren edo establezimenduaren aurreikusitako erabilera nagusiaz bestelakoa edo ordezkatzaila duten guneek —OD honen 1. atalaren 1. kapituluako 1.1 taulari jarraikiz, sute-sektore desberdin izan behar dute— arrisku bereziko lokal bakoitzarentzat eta gune bakoitzarentzat adierazten diren instalazioak izan behar dituzte, duten aurreikusitako erabileraaren arabera, baina inola ere ez dira izango eraikinaren edo establezimenduaren erabilera nagusiari oro har eskatzen zaizkionak baino gutxiago.

Suteetatik babesteko eskuzko instalazioen seinaleztapena

Suteen kontrako eskuzko babes-baliabideak (su-itxalgailuak, suteetako ur-harguneak, kanpoko sute-ahoak, eskuzko alarma-sakagailuak eta sua itzaltzeko sistemak abiarazteko gailuak) UNE 23033-1 arauan zehaztu bezala seinaleztatu behar dira, eta seinaleek neurri hauek izan behar dituzte:

- a) Seinalea ikusteko distantzia 10 m baino gehiagokoa ez denean, 210 × 210 mm;
- b) Seinalea ikusteko distantzia 10-20 m bitartekoa denean, 420 × 420 mm;
- c) Seinalea ikusteko distantzia 20-30 m bitartekoa denean, 594 × 594 mm;

Seinaleek beti ikusgai izan behar dute, baita argiztapen arruntaren hornidurak huts eginez gero ere. Fotolumineszenteak direnean, UNE 23035-1:2003, UNE 23035-2:2003 eta UNE 23035-4:2003 arauak ezarritakoa bete behar dute, eta haien mantentze-lanak UNE 23035-3:2003 arauan ezarritako koari jarraikiz egingo dira.

1.1 taula
Suteetatik babesteko instalazioak jartzea

<i>Eraikinarentzat edo establezimenduarentzat aurreikusitako erabilera</i> Instalazioa	Baldintzak
Oro har Su-itxalgailu eramangarriak	21A -113B eraginkortasuna duen bat: • Ebakuazio-jatorri guztietatik hasita, gutxienez, ibilbideko 15 m-tik behin solairu bakoitzean. • Arrisku bereziko guneetan, OD honen 1. ataleko 2. kapituluari ⁽¹⁾ jarraikiz.
Suteetako ur-hargune hornituak	Sutea pizteko arrisku nagusia materia erregai solidoa den arrisku berezi handiko guneetan, SS 1 ataleko 2. kapituluari jarraikiz. ⁽²⁾
Larrialdietako igogailua	<i>Ebakuazio-garaiera</i> 35 m baino gehiagokoa duten solairuetan. ⁽³⁾
Kanpoko sute-ahoak	Beharrezko <i>ebakuazio-garaiera</i> 28 m baino gehiagokoa bada edo goranzkoa 6 m baino gehiagokoa, eta, orobat, 2.000-10.000 m ² bitarteko azalera eraikia duten eta 5 m ² bakoitzeko pertsona bat baino okupazio-dentsitate handiagoa duten <i>establezimenduetan</i> . 10.000 m ² -rainoko azalera eraikietan, sute-aho bat gutxienez, eta gehitzen den 10.000 m ² edo frakzio bakoitzeko beste bat. ⁽⁴⁾
Sua itzaltzeko instalazio automatikoa	Erabilerarekin zerikusia duen beste agindurik egon ezean, 80 m baino gehiagoko <i>ebakuazio-garaiera</i> duten eraikin guztietan. Sukaldeetan: <i>ospitale-erabileran</i> edo <i>bizitegi-erabilera publikoan</i> , 20 kW baino gehiagoko potentzia instalatua dutenetan, edo beste edozein erabileratan, 50 kW baino gehiagoko dutenetan. ⁽⁵⁾ Transformadore-zentroetan: haien gailuek 300 °C baino gutxiagoko sugar-puntuko isolatzaile dielektrikoa dutenean eta gailu bakoitzak 1.000 kVA baino gehiagoko potentzia instalatua duenean edo gailu guztien artean 4.000 kVA baino handiagoa dutenean. Zentroa <i>elkargune publikorako erabilera duen</i> eraikin batean badago eta eraikinaren barrualdetik sarbidea badu, potentzia horiek 630 kVA eta 2 520 kVA dira, hurrenez hurren.
Elkargune publikoa Suteetako ur-hargune hornituak	Azalera eraikia 500 m ² baino gehiagokoa bada. ⁽⁸⁾
Tutu lehorra ⁽⁶⁾	<i>Ebakuazio-garaiera</i> 24 m baino gehiagokoa bada.
Alarma-sistema	500 pertsona baino gehiagoko okupazioa badu. Megafonia bidezko mezuak igortzeko balio behar du sistemak.
Sutea detektatzeko sistema	Azalera eraikia 1.000 m ² baino gehiagokoa bada. ⁽⁹⁾
Kanpoko sute-ahoak	500-10.000 m ² bitarteko azalera eraikia duten zinema-aretoetan, antzokietan, auditorioetan eta diskoteketan, eta 5.000-10.000 m ² bitarteko azalera eraikia duten kirol-barrutietan. ⁽⁴⁾

SS.5 ATALA_Suhitzaileen lana

Suhitzaileen hurreratzeari dagokionez, gaur egun orubera iritsi daiteke bi fatxada nagusietatik. Biak ala biak hurreratze-baldintzak eta ingurunearen baldintzak betetzen dituzte. Dena den, Tolosako Udalaren plan-orokorraren eskuetan dago baldintza horiek betetzea; hark ezarri baititu lerrokadurak eta hurreratze-baldintzak. Bestalde, fatxadatik sartzeari dagokionez, solairu guztietara bi fatxadetatik sar daiteke: 05 solairura terrazatik; 02,03,04 solairuetan balkoietatik; 01 solairuan bi leihotatik; 00 solairuan bi sarbideetatik; eta, sotoan, nagusiki, patioetik.

Hurreratze-baldintzak eta ingurunea

Eraikinetara hurreratzea:

Suhitzaileen ibilgailuak 1.2 puntuak zehaztutako maniobra-guneetara hurreratzeko bideek baldintza hauek bete behar dituzte:

- | | |
|---|------------------------|
| a) gutxieneko zabalera librea | 3,5 m; |
| b) gutxieneko garaiera librea edo galiboa | 4,5 m; |
| c) bidearen sostengu-ahalmena | 20 kN/m ² . |

Bihurgune-tarteetan, errodadura-erreia koroa zirkular baten trazak zedarrituko du, zeinaren erradioek 5,30 m eta 12,50 m izan behar baitute gutxienez, eta zirkulatzeke 7,20 m-ko zabalera librea izango du.

Eraikinen ingurunea:

1. Beheranzko ebakuazio-garaiera 9 m baino handiagoa duten eraikinek suhiltzaileek maniobrak egiteko tokia izan behar dute. Toki horrek, sarbideak dauden fatxadan, edo eraikinaren barnealdean, edo sarbideak dauden barnealdeko gune irekian, baldintza hauek izan behar ditu:

- | | |
|--|------------------------------------|
| a) gutxieneko zabalera librea | 5 m; |
| b) garaiera librea | eraikinarena; |
| c) suhiltzaileen ibilgailuaren eta eraikinaren fatxadaren arteko gehienezko tartea | |
| - 15 m baino gutxiagoko ebakuazio-garaiera duten eraikinak | 23 m; |
| - ebakuazio-garaiera 15 m baino gehiago eta 20 m baino gutxiago duten eraikinak | 18 m; |
| - ebakuazio-garaiera 20 m baino gehiago duten eraikinak | 10 m; |
| d) eraikineko gune guztietara heltzeko sarbideetarainoko gehienezko distantzia | 30 m; |
| e) gehienezko malda | % 10; |
| f) zoruak puntzonaketaren aurka duen erresistentzia | 100 kN, 20 cm ϕ -ren gainean. |

2. Gunean dauden zerbitzu publikoko eroanbideen erregistro-estalkietan bete behar da puntzonaketari dagokion baldintza, baldin eta haiek 0,15m x 0,15m baino neurri handiagokoak bada, eta UNE-EN 124:1995 arauak ezarritakoa beteko da.

3. Maniobrak egiteko tokian ez da hiri-altzari, zuhaitz, lorategi, mugarri edo bestelako oztoporik egongo. Era berean, fatxada batera sartzeko eskailera edo plataforma hidraulikorik aurrekustean bada, saihestu egingo da eskailerei traba egin diezaieketen elementurik izatea, hala nola aireko kable elektrikoak, zuhaitz-adarrak eta abar.

